# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a / 567. zenbakia

# 2003 urteari begiratua

## BERGARA

Geyser GASTECH S.A.
San Juan auzoa z/g 151 Posta kodea
BERGARA • 943 76 90 04
**PROFESIONALTASUNA, GAS BEROGAILUEN EKOIZPEGINTZAN**
1997ko irailean, Bergaran Geyser Gastech Teknologi eta Ekoizpen Zentrua sortu zen. Gure bezero, lankide eta eskualde honetako jende oro agurtu nahi ditugu.



# ARREGI AROZTEGIA




**BAITA ERE:** Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

**Tailerra** Urteaga, 20. 943 76 11 73 **Erakusketa** Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03



**Zorionak eta urte berri on herritar guztioi!**

BERGARAKO UDALA

# KALEINKESTA/ Zer eskatzen jatzu urte berrixari?



**VITALIANO FERNANDEZ**
**39 urte**

Gauza handirik ez dotsat eskatzen: orain arte moduan jarraitzia eta osasun aldetik ondo ibiltzia. Horrekin konformatzen naiz. Eta loterixia tokatzen bada, askoz hobe.



**MARCIAL MORENO**
**72 urte**

Lehenengo, osasuna. Bukatzeko dagoen urtia nahiko ondo jun jat eta ea berdin jarraitzen dogun... Eta betikua: osasuna diruz lagunduta badator, orduan bai ondo!



**JOSE MARI GARCIA**
**49 urte**

Lehenik eta behin osasuna eskatzen dotsat urte berrixari, horrekin aurrera jarraitzeko aukera dagoeta. Ingurukuak ondo egoteari lehentasuna emoten dotsat.



**MARCIAL AUT**
**38 urte**

Lana. Hori lehenengo. Langabezixan geratu naiz eta nahiko gaizki daude gauzak lana topatzeko orduan. Laneko kontuaz aparte, nahiko ondo jun jat urte hau.



**AMAIA ARRIARAN**
**32 urte**

Egixa esateko, ondo nago baina loterixia tokatzen bajaku, opor luziagoak izaten badittugu eta lan gutxiago egiterik badaukagu, urte ona izango da. Ea gauzak ondo juten dien.



**CESAR CEBRIAN**
**54 urte**

uAurtengoa baino hobia izatia eskatzen dotsat. Ez da txarra izan baina... Osasuna dagon bittartian... Ea seme-alabek suertia daukaten lanakin-eta. Horrek poztuko ninduke.

## ETABARRUAN...

GAINBEGIRATUA /3
URTEA DATUTAN /4-5
ONENA ETA TXARRENA /6-7
DATORRENA DATORRELA /44-45
ERRETRATU ZAHARRA /46

URTEARI GAINBEGIRATUA
**Urtarrila /8-11**
**Otsaila /12-13**
**Martxoa /14-15**
**Apirila /16-19**
**Maiatza /20-21**
**Ekaina /22-27**
**Uztaila /28-29**
**Abuztua /30**
**Iraila /32-35**
**Urria /36-37**
**Azaroa /38-41**
**Abendua /42-43**




## ZURIETABELTZ



### *Bai, errepideak hobetu!*

**IÑAKI MADINABEITIA** / Teknikaria

Bai, ados. Gure eskualdean premia handia dago errepideak hobetu eta komunikazioak ganoraz hornitzeko. Baina askok eta askok ez dugu uste autopista eredu hori egokiena denik. Politikari eta teknikariek erabili dituzten arrazoiak ezagututa, badakigu autopista hori ez dela gure bailarako interesei zuzenduta, gutxi batzuen onurari begira baizik. Agintari hauek oso jakintsu eta demokratatzat dute beren burua; horregatik ez digute gure iritzia eskatuko. Bere garaian, NIPak antolatu zirenean, iritziak eta erantzunak beraien gustukoak izan ez zirenez, aise baztertu zuten proiektu hura. Orain dena eginda emango digute. Hori bai, ordaintzeko orduan, denon artean.

Eskualde barruko komunikazioek eskualderako pentsatutako errepideak behar dituzte. Herrietan, merkataritza gero eta ahulagoa da, garraio publikoa txarra, zine aretoak lur jota... Edozertarako Gasteizera joan behar. Komunikabide eredu horiek gure bizitza hirietarantz bultzatzen dute eta ez alderantziz.

> **"Komunikabide eredu horiek gure bizitza hirietarantz bultzatzen dute eta ez alderantziz"**

Jakina, denon ondasunak erabiliz, gutxi batzuk negozio borobila egingo dute. Natur guneak, nekazal guneak, komertzio txikia, gazte zerbitzuak, herri giroa... ez dira benetan aintzakotzat hartzen ("kalte kolateralak" izango dira).

Gure ekonomia maneiatzen duten "listo" horiek, egon ziur, ados jarri dira dagoeneko AHTren sosak ongi banatzeko. Zerbait irabazi dezaketenen artekoa baldin bazara, jaso ezazu nire irribarrerik xamur eta faltsuena. Gehiengo arruntekoa izanez gero, aldiz, nire agurrik beroena eta elkar ikusten dugun, Ondartzako ordaingunean besterik ez bada.



### *Eibar-Gasteiz autopista: ongi-etorria!*

**JUAN MARI OTAEGI** / Euskadiko Kutxako presidentea

Julio Caro Barojak euskaldunok nahiko diakronikoak garela aipatu zuen. Memoria historikoaren jabeak baino gehiago, tradizionalistak omen garela. Gure arazoen konponbidera, berandu heltzeko joera ei daukagu. Gauza bera esan zidan katalan lagun batek (arkitektoa eta hirigilea bera) autobidearen gaiaz ari ginela: "Baina ez zuten erabaki orain dela hamar urte egitea, ala? Eta ez dute oraindik egin?"

Eibar-Gasteiz autobidearen lehen zatia martxan jartzea Debagoieneko bizitzarako eta garapenerako gauza positiboa izango da. Ekonomia eta enpresa ikuspuntu batetik, desoreka handia dago gure bailarak Gipuzkoa eta Euskadiko ekonomian egiten duen ekarpenaren eta gure komunikabideen (barrurako zein kanporako) artean. Honek gure enpresen kostuen handitzea dakar, lehiakortasunaren kaltetan. Bailara industriala da gurea eta Europara hurbiltzea guztion mesederako izango da.

> **"Zerbitzu konpetitiboak eskaini nahi dituen bailara izan nahi badugu, azpiegitura baliagarriak behar ditugu"**

Zerbitzu konpetitiboak (unibertsitatea, zerbitzu finantza-jarduerak, nekazari turismoa...) eskaini nahi dituen bailara izan nahi badugu, komunikazioko azpiegitura baliagarriak izatea ezinbestekoa da.

Gaurko komunikabide azkarrek (Santurtzi-Baiona eta Bilbo-Gasteiz, Ebroko korridorearekin bat egiten duena) Euskal Herri barruko hainbat bailararen interesak ez dituzte jasotzen eta Debagoiena, esaterako, guztiz desplazatuta geratzen da. Ezin dugu Euskal Herriko tailerra izatera mugatu, orekadun garapena lortu nahi dugu. Geografiak gure bailarari ematen dion erdigunea benetakoa izateko lanean jarraitu behar dugu.

Berrigara
Irizar Jauregia• Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Usoa Agirre
Irati Agirreazaldegi
Monika Belastegi
Aintzane Irizar
Eneida Iturbe
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Olaia Mondragon

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:
Eusko Jaurlaritzako Kultura saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Bergarako Udala
Antzuolako Udala
Elgetako Udala

# URTEA DATUTAN

*Azken urteotan ohikoa denez, 2003 urteak emandako hainbat datu jaso nahi izan ditugu urtekarian. Bergararrok zer irakurtzen dugun, zelako musika entzuten dugun edota zelako autoak erosten ditugun jakiteko baliagarriak dira: kuriosoendako datuak. Bestalde, aurten ere herriko biztanleriak behera egin duela jakin dugu.*




## LIBURU salduenak

EUSKARAZ
1. **Kandinskyren tradizioa**
   Unai Elorriaga
2. **Krokodiloa ohe azpian**
   Mariasun Landa
3. **Berbeta berua**
   Alberto Telleria
4. **Atzo**
   Agota Kristof

GAZTELANIAZ
1. **Cocidito madrileño**
   Javier Vizcaino
2. **La voz de Lug**
   Toti Martinez de Lezea
3. **Rutas para descubrir Euskal Herria**
   Ibon Martinez
4. **Diario de un skin**
   Antonio Salas




## DISKO salduenak

EUSKARAZ
1. **Betizu 1.0**
   Betizu taldea
2. **Kantuok jartzen ditut**
   Ruper Ordorika
3. **Bidean**
   Ken 7
4. **Zoramena**
   Gatibu

GAZTELANIAZ
1. **Lo que te conte mientras te hacias la dormida**
   La Oreja de Van Gogh
2. **No es lo mismo**
   Alejandro Sanz
3. **St. Anger**
   Metallica
4. **Lo mas lejos a tu lado**
   Fito y los Fitipaldis




## FILM ikusienak

1. **La pelota vasca**
   Julio Medem
2. **El señor de los anillos: las dos torres**
   Peter Jackson
3. **Harry Potter y la piedra filosofal**
   Chris Columbus
4. **Mortadelo y Filemon**
   Javier Fesser
5. **Los lunes al sol**
   Fernando Leon
6. **El pianista**
   Roman Polanski
7. **Chicago**
   Rob Marshall
8. **El jardin de la alegria**
   Nigel Cole
9. **Kamchatka**
   Marcelo Piñeyro
10. **Shin Chan**
    Keiichi Hara




## BIDEO hartuenak

1. **X-men 2**
   Bryan Singer
2. **Condenado**
   Michael Caton-Jones
3. **Hulk**
   Ang Lee
4. **Taxi 3**
   Gerard Krawczyk
5. **Matrix 2**
   Andy eta Larry Wachowski
6. **El monje**
   Paul Hunter
7. **Jackass**
   Jeff Tremaine
8. **The ring**
   Gore Verbinski
9. **The core**
   John Amiel
10. **Driven**
    Renny Harlin




## AUTO salduenak

1. **Opel Astra**
   19 auto
2. **Citroen Xsara**
   18 auto
3. **Peugeot 307**
   16 auto
4. **Ford Focus**
   14 auto
5. **Volkswagen Passat**
   13 auto
6. **Citroen C3**
   10 auto
   **. Volkswagen Golf**
   10 auto
8. **Renault Laguna**
   9 auto
   **. Seat Leon**
   9 auto
   **. Opel Zafira**
   9 auto

Autoen gaineko datuak: 2003-01-01 / 2003-10-31

## EGUNKARI salduenak

1. El Diario Vasco
2. Gara
3. Berria
4. Deia
5. Marca

## ALDIZKARI salduenak

1. Pronto
2. ¡Hola!
3. Lecturas
4. Semana
5. Mia

## Egunik BEROENA

2003ko abuztuaren 4a

**42ºC**

## Egunik HOTZENA

2003ko otsailaren 18a

**-5ºC**

## Egunik EURITSUENA

2003ko maiatzaren 6a

**70,9 L**

## BIZTANLE kopurua

**14.991**

**Jaiotakoak**
**95**

**Hildakoak**
**116**

**Etorritakoak**
**254**

**Joandakoak**
**335**

**ALDEA**
**-102**

**Aurten ere behera egin du Bergarako biztanleria kopuruak: 2001ean 15.107 bizilagun ginen, 2002an 15.093 eta aurten, berriz, 14.991. Goiko datuetan ikus dezakezuenez, jaiotakoen eta etorritakoen kopurua hildakoena eta kanpora joandakoena baino txikiagoa da: 102 lagun gutxiago.**

2003ko urtarriletik 2003ko azaroaren 30era bitarteko datuak jaso ditugu.



Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin, gure bezeroek merezi duten kalitatezko zerbitzua eskainiz.

Ariznoa
HOTELA

Telesforo Aranzadi, 3
Tel. 943 761 846 - 943 761 847 Faxa: 943 761 848
20570 BERGARA - Gipuzkoa

# Urtean HILDAKOAK



### URTARRILA
7 Cristóbal Moral Pozo, 80 urte
Manuel Muñoz Jurado,78 urte
8 Rosa Bidaola Arbide, 86 urte
13 Bittori Umerez Guridi, 89 urte
15 Alicia Agirre Uriarte, 69 urte
19 Ibone Gómez Gutiérrez, 85 urte
21 Eleuterio Olabarria Altuna. 86 urte
Antonio Zapata Lasheras, 77 urte
22 Silvia Mayo Fernández, 43 urte
24 Antonia Arana Zabala, 88 urte
30 Vicente Lázaro Ibáñez, 81 urte

### OTSAILA
7 Juan Itarte Olaz, 63 urte
Regina Zabaleta Lamarain, 77 urte
8 Gumersindo Latorre Mainer, 80 urte
10 Sebastiana Larrañaga Urisabel, 99 urte
12 Luisa Arregi Urbieta, 94 urte
14 Carmelo Ramírez Nunez, 83 urte
16 Ignacio Vinicio Berasategi Galarreta, 73 urte
28 Kontxi Ibarguren Soraluze. Otsailaren 28an, 64 urte

### MARTXOA
9 Julián Ezenarro Álvarez, 78 urte
10 María Artolazabal Txintxurreta, 94 urte
11 Anjel Aristegi Biain, 45 urte
21 Baltasar Benítez Izquierdo, 77 urte
26 Pedro Eguren Eguren, 80 urte
31 Natalia Fernández Mazo, 97 urte

### APIRILA
4 Felix Garmendia Astarloa, 87 urte
6 Felipe De Benito Pura, 82 urte
8 Anjel Cobos Irisarri, 81 urte
10 Jon Luque Couñago, 17 urte
Francisca Vega Segundo, 87 urte
17 Jabier Etxabarri Luquín 69 urte
Francisco Paris Catalán 69 urte
Jose Luis González Arregi, 58 urte
Maria Angeles Ormaetxea Luarizaristi, 89 urte
21 Consuelo Sierra Segovia, 96 urte
25 Juan Jose Laskurain Askasibar, 81 urte
26 Anjel Ruiz Santa Eulalia, 66 urte
28 Jose Mari Epelde Gabilondo, 60 urte
29 Eusebia Muruamendiaraz, 80 urte
Maria Amutxastegi Azpiazu, 78 urte
30 Paco Unanue Larrañaga, 70 urte

### MAIATZA
1 Jose Larrañaga Berraondo, 57 urte
2 Maximo Jiménez Fernández, 82 urte
3 Arantxa Unamuno Alberdi, 51 urte
13 Amalia Caballero Cubero, 76 urte
21 Jesus Rueda García, 62 urte
22 Jose Alberdi Arrese-Igor, 72 urte
26 Hermenegildo Olabarria Gisasola, 89 urte
Marcial Egaña Muruamendiaraz, 95 urte
30 Milagros Martínez Sáenz, 74 urte

### EKAINA
1 Maria Gurrutxaga Lizarralde, 93 urte
4 Maxima Aldai Otadui, 87 urte
Trini Zunzunegi Arratibel, 82 urte
5 Juliana Aierbe Zurutuza, 95 urte
6 Jon Maria Ezpeleta Ibarra, 72 urte
10 Emeterio Gabilondo Gabilondo, 79 urte
Marisa Agirre Untzila, 49 urte
15 Filomena Askasibar Guridi, 87 urte
Julian Gantxegi Belategi, 52 urte
17 M. Luisa Errasti Etxeberria, 73 urte
22 Luis Ignacio Ruiz de la Prada Untzeta, 82 urte
24 J. Manuel González Garrido, 42 urte
27 Ricardo Murillo Ballarín, 80 urte
29 Fermin Agirre Kortabarria, 92 urte

### UZTAILA
1 Carmelo Gandiaga Larrinaga,64 urte
6 Jose Luis Sanz Candamio, 69 urte
14 Isidra Markiegi Laskurain, 83 urte
Teresa Dávila Ortiz,82 urte
20 Pedro Elías Arana, 79 urte
26 Maria Rosario Arretxe Gallastegi, 91 urte
27 Jose Pin Fernández, 64 urte
28 Prudencio Belastegi Elkoro, 91 urte
31 Prudencio Mujika Telleria, 59 urte
Rosario Nieto Dobao, 80 urte

### ABUZTUA
2 J. Manuel de la Torre Fernández, 57 urte
4 Pilar Goenetxea Arantzabal, 84 urte
6 Migel Angel Albistegi Anduaga, 50 urte
7 Maria Astigarraga Garmendia, 87 urte
8 Juan Luna López, 77 urte
9 Sebastian Aranguren Arrazola, 83 urte
10 Emiliana Olañeta Arantzabal.,83 urte
11 Vicente Oregi Garmendia,79 urte
Anacleto Agirre Badiola, 81 urte
12 Carmen Etxeberria Jauregi, 85 urte
13 Jose Loiti Laskurain, 88 urte
15 Margarita Lakiniana Bilbao, 78 urte
20 Pedro Maria Paternain Suberbiola, 63 urte
21 Jabier Berasategi Arriola, 65 urte
23 Rafael Zabaleta Barrutia, 63 urte
25 Josefa Zabaleta Sodupe, 93 urte
Ignacio Bilbao Mijika, 84 urte

### IRAILA
3 Iñaki Lazpiur Agirrebeña, 42 urte
Francisco Javier Ugarte Unamuno, 54 urte
5 Jose Tejada Navarro,71 urte
8 Felipa Barrutia Laskurain. Irailaren 8an, 83 urte
9 Maria Dolores Igartua Kortabarria, 82 urte
18 Magdalena Garmendia Larrañaga, 85 urte
27 Mari Carmen Intza Aksasibar, 94 urte
29 Patxi Balentziaga Elorburu, 77 urte
30 Gilita Mujika Larrea,73 urte
Bixente Moñux Angulo, 90 urte

### URRIA
6 Izar Rodríguez Rivera, 25 urte
9 Rafael Vallejo Guirado, 71 urte
13 Asuncion Zabaleta Igartua, 69 urte
15 Jabier Larrañaga Barrena, 46 urte
Adelaida García Tajadura, 93 urte
16 Iñaki Eguren Azkorbebeitia, 70 urte
17 Benita Benítez Carmona, 85 urte
25 Roman González Arzuaga, 84 urte
27 Manuel Zalakain Muguruza, 71 urte
31 Pablo Sola Campos, 73 urte

### AZAROA
4 Alberto Salas Bein, 25 urte
6 Juan Iturbe Txintxurreta, 79 urte
7 Ignacio Mendizabal Eraña, 88 urte
8 Maria LarringanLoroño, 85 urte
12 Jesusa Aldekoa Loiti, 82 urte
14 Agustina Mondragon Agirrezabal, 86 urte
16 Mercedes Garitano Lizarralde, 85 urte
18 Ramon Azpeitia Etxeberria, 80 urte
22 Juan Maria Aizpurua Agirre, 43 urte
26 Txaro Vila Unanue, 61 urte
Luis Iglesias Fernandez, 77 urte.
Francisco Javier Bikuña Torres, 79 urte
28 Jose Antonio Imaz Urzelai, 79 urte

### ABENDUA
3 Manoli Muñoz Nucete,
Marina Cachafeiro Rufete,70 urte
5 Severina Valiente Freije, 91 urte
9 Mirari Peña Unamuno, 41 urte
10 Ignacio Mujika Ardanza, 87 urte
14 Maria Josefa Madariaga Isas-Isasmendi, 63 urte

hildakoen gaineko datuak: 2003-01-01 /2003-12-17



HORTZ KLINIKA

Urte Berri On !

Silvana Caviglia doktorea
Simon Arrieta plaza 3, 2. Tel.943 76 38 54 BERGARA

ASEGURUAK
·Sermesa
Pakea
Grupo Eroski
·Ibersalud Globalcard
Aegon
Asepeyo
·Mapfre
·Fremap
·Azkaran



# ONENA ETA TXARRENA

*2003. urtea amaitzear dago, eta laster urte berriari ongietorria egingo diogu. Horrelakoetan, balantzea egiteko ordua izaten da. Urteko 365 egunek gauza asko ekarri dizkigute, era guztietakoak, logikoa denez: pozgarriak batzuk, zoritxarrekoak beste hainbat. Herriko hainbat lagunengana jo dugu, euren iritziz urteak eman dituen gauzarik onena eta txarrena zein diren jakiteko.*



**LOLI CONDE**
BEKE Elkarteko presidentea

**↑ BEKE-REN SORRERA**
Bergarako Emakume Kultur Elkartearen sorrera aipatuko nuke. Emakumearendako eta emakumearentzat lan egin nahi duen elkartea da, eta orain arte herrian ez zegoen halakorik.

**↓ PRESTIGE**
ontziaren hondoratzeak kostaldean izan duen eragina. Uda aldera, batik bat, tristea izan da, benetan, Euskal Herriko kostalde zoragarria fuel-olioz zikinduta ikustea.



**GORKA ORTEGA**
Txapa irrati libreko kidea

**↑ EUSKALDUNOK BATZEA**
Urtean barrena euskal izaeraren aurka eman diren gertakarien aurrean euskaldunok mugitu egin gara eta bat egin dugu. Horixe aipatuko nuke neuk.

**↓ EUSKALDUN IZATEA, DELITU**
Euskalduna izatea delitua dela dirudi, eta aurten areagotu egin da hori. Horixe da nire ustetan urteak eman duen gauzarik txarrena, eta horren adibide nahikotxo ditugu, gainera.



**EIDER ARZELUS**
Jarduneko kultura dinamizatzailea

**↑ EGUNKARIA ITXI**
eta gero herritarrek edo gizarteak halako erasoari emandako erantzuna aipatuko nuke. Euskaldunok bat egin genuen gertakariaren aurrean eta oso positibotzat jotzen dut hori.

**↓ EUSKALGINTZAK JASAN**
dituen erasoan dira urteak emandako txarrena; Euskaldunon Egunkariaren itxiera, bat aipatzearren. Azken batean, euskal izatearen aurkako beste adibide bat dira.



**ENAITZ ALUSTIZA**
Bertsolaria

**↑ BERTSO ESKOLAREN**
bigarren urtea izan da hau, gazte eta umeen bertso eskolena, hain zuzen. Lehenengo urtetik hona animuak hoztu beharrean, ikasle berriak sartu eta taldea indartu da.

**↓ ESPAINIAKO GOBERNUAK**
azaldutako jarrera anormala urtean zehar azaldu diren hainbat gai/arazoren aurrean. Hala nola, Euskal Herria, Prestige-a, Irakeko Gerra eta ahazten zaizkidanak.



**ANDER ELORZA**
Gazte Asanbladako kidea

**↑ ERASO GUZTIEN GAINETIK**
euskaldunok erakutsitako elkartasuna eta gauzak aldatzeko borroka grina. Herri mailan, berriz, sortzen edota egonkortzen dihardutén mugimenduak.

**↓ MUNDURA BEGIRA IRAK-EKO**
gerra; gutxi batzuen aberastasunarengatik izugarrizko sarraskia egin dutelako. Hemen, euren buruak demokratatzat dutenak demokrazia hori hankartetik pasatzea.



**JON LOPEZ**
Udal teknikaria

**↑ EUSKALGINTZAREN ADOREA**
Euskarak pairatzen dituen erasoei erantzuteko Euskalgintzak azaldu duen adorea eta kohesioa dira urtean emandako gauzarik onena.

**↓ ESPAINIAR**
gobernuaren intransigentzia eta horren ondorioak, hala nola: legez kanporatzeak, espetxezigorren luzaketa, atxiloketa prebentiboak, sakabanaketak, erraildakoak...



**MIREN AMOR**
Kale hezitzailea

**↑ GARAPENAREN IZENEAN**
egiten diren txikizio guztiei erantzuteko urtean barrena egon diren mugimenduak. Hala nola, Itoizekiko solidarioak edo globalizazioaren kontrakoak.

**↓ EUSKARAK**
eta oro har euskal kulturak jasandako erasoa; haren aurka egindako ekintzak aipatuko nituzke. Besteak beste, Egunkariaren aurkakoa eta Nafarroako ikastetxeena.

Urte berri on!



EL CARMEN
GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego
Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39 20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23



**IRATXE ARANBURU**
Udaleko kirol teknikaria

**EUSKARAZ BIZI**

Ez luke izan behar baina, zoritxarrez, *Berria*-ren sorrera. Gizarte honetan euskaraz bizitzeko gogoa dago eta herritarrok horren aldeko apustu garbia egin dugu.

**MUNDUKO GIZARTE POLITIKA**

Munduko gizarte politika aurten ere ildo beretik doala ez da batere pozgarria: Irakeko gerra, Prestige-aren ondorioak, lan istripuak, presoen dispertsioa, genero indarkeria...



**PATXI URIBESALGO**
Gure Ametsa elkartekoa

**KIROLA ETA ARRANTZALEAK**

Kirol mailan, Euskaltelek, Somarribak eta Realak egindakoa txalotzekoa izan da. Bestalde, euskal arrantzaleek galipota batzeko egindako lana ere goraipatuko nuke.

**PPKO GOBERNUAREN JARRERA**

Orokorrean urte txarra izan da eta Irakeko gerra edota Palestina eta Israelen arteko auzia konpontzeke daude oraindik. Euskaldunok, berriz, PPko gobernuaren jarrera sufritu dugu.



**MAITE ARISTEGI**
Nazio Eztabaidaguneko Bozeramalea

**GIZARTEAREN ERANTZUNA**

Globalizazio neoliberalaren aurrean gizarteak eman duen erantzuna, beste mundu bat posible dela alegia. Euskal Herrian ere jendeak bere etorkizuna erabakitzeko nahia azaldu du.

**HIRUKOTE BELTZA**

Bush, Blair eta Aznar hirukotea, gerra giroa eta sufrimendua besterik zabaldu ez dutelako. Euskal Herriari begira, Aznar eta akolitoek ere eztabaidarako itxitasuna erakutsi dute.



**MIKEL LIZARRALDE**
*Berria*-ko kazetaria

**HERRITARREN BABESA**

Baikor jarrita, ezin ahaztu, otsailaren 22an, *Egunkaria*-ren alde Donostian bildutako milaka lagunen babesa. Edota herriz herri euskarazko egunkari berri bat sortzeko egin den lana.

**ASKATASUNA GAINBEHERAN**

Ikuspegi pertsonaletik, *Egunkaria* itxi zuteneko egunak: Guardia Zibilak nola eraman zituen kolpeka hainbat lagun, nola tortura salaketa mingarriak entzun behar izan genituen...



**MARIJE UGALDE**
Orfeoiko kidea

**DISKO BAT GRABATZEAR**

Arlo pertsonalean, Aitor Olea organo jolearekin batera San Pedron emandako kontzertuak berarekin disko bat grabatzeko aukera eman dit. Urtarrilean grabatuko dugu ziurrenik.

**IRAKEKO GERRA**

Irakeko gerra amaitzeke dago eta ustekabeko ondorioak ekarri ditu. Ea zela bukatzen den, bukatzen bada... Estatubatuarrek piztu dute gerra eta euren jokaera zalantzazkoa izan da.



**MARIA URZELAI**
Aktorea

**BERGARAN AKTORE**

Gizarte mailan ez dut uste ezer positiborik gertatu denik. Beraz, gauza pertsonalekin geratuko naiz: adibidez, *El feeling es así* gure lana Bergaran antzeztea oso berezia izan zen niretako.

**BOTEREAREN ZENTSURA**

Boterean daudenen partetik zentsura kasu pilo bat egon da urtean zehar, inoiz baino gogorragoak gainera. Botereak ia ia nahi duena egin dezake eta horrela ezin da aurrera egin.



**LORENTZO LASKURAIN**
San Joxepe elkartekoa

**OSASUN ARLOA**

Osasun arloan transplante berriak egin dira eta erredurak jasotakoen kasuan ere aurrera pausuak eman dira. Itsasoan galipota batzeko egindako lana ere txalotzekoa izan da.

**NAZIOARTEKO EGOERA**

Irakeko gerra eta Israel eta Palestinaren arteko auzia konpontzeke daude eta horrek nazioarteko egoeran eragin nabaria izan du. Prestige-aren istripua ere guztiz kaltegarria izan da.



**IZASKUN LABAIEN**
Aritzetako kidea

**ARITZETAREN EMANALDIAK**

Munduan dagoen panorama eskasa ikusita, Aritzetak Aste Santuan, Madrilen, emandako kontzertua eta Santa Marinako lanen inaugurazioan eskainitakoa nabarmenduko nituzke.

**AMAREN GAIXOTASUNA**

Arlo pertsonalean amaren gaixotasuna gogorra izan da. Bere alderdi positiboa izan du, ospitalean egon den zazpi hilabeteetan anai-arrebak eta aitak egoera berriari moldatzen jakin dugu-eta.



**MIKEL LARRAÑAGA**
Lokatzako presidentea

**KOMUNIKABIDEAK**

Zerbait nabarmentzekotan, komunikabideak hobetzeko gurean egiten dihardutenen lanak goraipatuko nituzke. Lanok martxa onean doaz. Gure bailarak badu errepideak hobetzeko beharra.

**IGERILEKURIK GABE UDAN**

Udan Bergaratik kanpo joan behar izan dugu bainua hartzera, igerilekuak beharrezko baldintzetan ez zeudelako. Umeak dauzkagunontzat ez da batere atsegina izan igerilekuen arazoa.



**AINTZANE ARANA**
Elkarriko kidea

**GIZARTEAREN AHOTSA**

Jasan dituen erasoen aurrean, gizarteak ahotsa altxatu du, aldaketek suposatzen duten zalantzei aurre eginez. Esaterako, Medem zine zuzendariak izan duen jarrera txalogarria izan da.

**DENBORAN ATZERA**

Urtetan ezkutuan egon diren Francoren aztarnak agerian geratu dira: partiduen legez kanporatzea, justiziaren manipulazioa, Egunkariaren itxiera, Irakeko gerra ere hor da...

Servimasa

zorionak eta urte berri on!

Haitz-Iturri 4 • Posta kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 • Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

103 industrialdea
Tel.: 943 52 05 00 • Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO (Gipuzkoa)

BERRIGARA
Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a

# URTARRILA



*"Oso pozik gaude 'Oliver' musikaleko emanaldiek izandako erantzunarekin"*

**DAVID AZURTZA**/ ORFEOIA

2003-01-17



*"Enpresaburuen aldetik gazteekiko konfiantza falta sumatzen dut"*

**IKER MURUAMENDIARAZ** / PILOTARIA

2002-01-10

## HILEKOESALDIA

**"Orain arte bezala jarraitu nahi dugu, partiduz partidu, eta inolako helbururik finkatu barik"**

**AGUSTIN ARANTZABAL** / FUTBOLARIA

2003-01-31

## HILEKODATUA

**45**

**E-POSTAZ JASOTAKO AMODIOZKO GUTUNAK**

Ehun gutun jaso zituzten Jardunen Amodiozko Gutunen Lehiaketaren barruan. Horietatik 45 e-postaz jaso zituzten. /2003-01-24



### Sahararrei laguntzeko kanpainarekin bat egin zuen Udalak

Gipuzkoako beste hainbat udalerrirekin batera, Bergarako Udalak Saharako herritarrei laguntzeko kanpainarekin bat egin zuen. Udalaz gain, herriko beste hainbat taldek ere bat egin eta kolaboratu zuten kanpainarekin: San Martin Ikastetxeak, Aranzadi Ikastolak, Mariaren Lagundia Ikastolak, Bergarako gaztetxeak eta Komite Internazionalistek, hain justu. /2003-01-10

**SAHARARREI LAGUNTZEKO KANPAINA**

Gipuzkoako zenbait udalerrirekin batera, sahararrei laguntzeko kanpainarekin bat egin zuen Udalak. /2003-01-10

**ERREPIDEAK KONPONTZEKO BEHARRA**

San Juan auzoan dabilen ibilgailu kopuru handia ikusita, errepidea konpontzeko premian. /2003-01-31

## AIPAGARRI



**GORKA MARTN**
**Pilotaria**

Eibar taldeko pilotari bergararra Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako finalera iritsi zen Bengoetxearekin. 22-15 galdu zuten finala. /2003-01-17



**ANA MARI REKALDE**
**Moja**

Ana Mari Rekalderi omenaldia egin zioten. San Pedro eta Santa Marinako koroek organo jotzaile gisa egin duen lana eskertu nahi izan zioten. /2003-01-24



**JOSU CIFUENTES**
**Gaztea**

Josu Cifuentes gaztea Bartzelonara eraman behar izan zuten, hezur-muina transplantatzera, eta tratamenduan laguntzeko diru bilketa hasi zuten. /2003-01-31




JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

López Ojeda

Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)

Señorío de Ojeda
Errioxa

Castillo de Ojeda
Nafarroa

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

ATXEGA ARDOAK S.L.
Ortzaika auzoa
Tel.: 943 830 369
943 830 375
20.810 ORIO
(Gipuzkoa)

ELUSU ERAIKUNTZAK




•Era guztietako eraikuntzak
•Erreformak
Teilatuak
Sukaldeak
Bainuak
Fatxadak

**Baserri eta jauretxeen** erreformetan **eta txaleten eraikuntzan** espezializatuta gaude

Ondo pasau denok!

Arruriaga 5
943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45





UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

K21 KALITATEA

Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak









Euskararentzat
bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argituko da noizbait
bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu
Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak
dakarkiola geureari
osasuna

UDAL
EUSKALTEGIAK

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net



## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Sareko Argia saria 'sustatu.com'-i

*Sustatu.com* euskarazko lehen weblogak irabazi zuen Sareko Argia saria. Goiena kooperatibak kudeatutako webloga da *sustatu.com*.

2003-01-25

▸ EUSKAL HERRIAN

### Elurra dela-eta, Hegoaldea alertan

Elurra gogoz egin zuen Euskal Herri osoan; kostaldean, esaterako, 200 metrotik gora egin zuen. Alerta egoeran egon zen Hego Euskal Herri osoa.

2003-02-02

▸ MUNDUAN

### Lurrikara batek 23 hildako utzi Mexikon

Richter eskalan 7,6 graduko lurrikara beldurgarri batek 23 hildako eta 350 zauritu utzi zituen Mexikon, Coliman eta Jaliscon.

2003-01-21

## GAZTETXEA




### Herriko taldeak batu zituen gaztetxeak 'Astindu' fantzinean

*Astindu* fantzinearen 8. zenbakia aurkeztu zuten gaztetxeko kideek *Isiltasuna apurtzen* izenburupean. Azken bi hamarkadetan herrian izan diren musika talde ia gehienak batu zituzten aldizkarian. 35 talderen historia, adierazpenak eta hainbat berezitasun ere jaso zituen aldizkariak. Horrez gain, CD bikoitza atera zuten, talde bakoitzaren kantu banarekin. /2003-01-17

HIRIGINTZA

### Gaztetxea egokitzeko lanak hasi zituzten urtarrilaren 20an

Lehenengo, kartzelariaren etxea konpontzeari ekin zioten, eta gero, kartzela zaharra konpontzen hasi ziren. Arregi Eraikuntzak enpresak egin zituen egokitze lanak, Iñaki Berasategi, Elisabeth Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek egindako proiektua oinarri hartuta. /2003-01-24

PRESOAK

### Paulo Elkoro bergararra Munichen espetxeratu zuten

Urtarrilaren 21ean atxilotu zuten Elkoro Nuremberg-en (Alemania). Inork jakin barik bi egunez polizia etxean egon ondoren, Municheko espetxera eraman zuten, eta isolatuta egon zen hainbat egunean. Haren lagun bat ere atxilotu zuten eta bost orduz izan zuten polizia etxean. /2003-01-31

PRESOAK

### Luis Mari Azkargorta 'Kanto', etxean 14 urteren ostean

Urtarrilaren 7an, Ruth Alonso epaileak baldintzapeko askatasuna eman ondoren, herrira iritsi zen *Kanto*. 1988ko apirilaren 22a ezkero Estatuko zortzi espetxetan egon zen, eta azkeneko lau urteak Martutenen eman zituen. Ongietorria egin zioten senitarteko eta herritarrek. /2003-01-10

KIROLA

### Aitor Delariberette Snowboardeko Munduko Txapelketan

Aitor Delariberette 22 urteko bergarar gazteak Snowboardeko Munduko Txapelketan hartu zuen parte Austrian. Boarder Cross izeneko espizialitatean, senior mailan, 46. sailkatu zen Aitor. Munduko Txapelketan parte hartzea esperientzia ederra izan zela azaldu zuen. /2003-01-24

KULTURA

### Organo Erromantikoaren IV. Nazioarteko Zikloa San Pedron

Bergarako, Azkoitiko eta Loiolako udalek antolatu zuten Organo Erromantikoaren Nazioarteko IV. Zikloa. Bergaran San Pedroko organoan egin zituzten emanaldiak. Guztira bederatzi emanaldi antolatu zituzten eta horietako hiru San Pedro elizan egin ziren. Wieland Meinhold organo jotzaile alemaniarrak, Jean Paul Imbert frantziarrak eta Aitor Olea Juaristi euskaldunak egin zituzten emanaldiak. Azken horrekin batera, Maria Jesus Ugalde soprano bergararra aritu zen, Bergaran bakarka kantatzen zuen lehenengo aldia izan zuen Maria Jesusek. /2003-01-17

ZAHARRAK BERRI

### Esperientzia Gela inauguratu zuten UNED ikastetxean

Urtarrilaren 16an Esperientzia Gela inauguratu zuten Bergarako UNED ikastetxean. UNEDek erretiratuei zuzendutako ikastaroak abian jarri zituen. Etengabeko heziketa programa hiru fasetan banatu zuten; lehenbizikoan San Joxepeko hogei lagunek hartu zuten parte. /2003-01-24

ZUHURKI S.L.
Aholkularitza fiskala eta kontablea
URTE BERRI ON!
Bidekurutzeta 46-behea, esku. • Tel.: 943 763 353 • 20.570 BERGARA (Gipuzkoa)

COAR
Sukaldeak. Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak. Arozlanak.
Bergara ☎ 943 76 58 86 / 670 765 886
Urte berri on!!

# OTSAILA



*"Bikotekideari idatzitako gutuna da lehiaketan aurkeztua eta %90 egia da"*

**ROBERTO IZAGIRRE/** IDAZLEA

2003-02-07



*"Lehenengo aldia da Bergaran bakarka abesten dudala; gogo handia nuen"*

**MARIA JESUS UGALDE /** SOPRANOA

2003-02-14

## HILEKO ESALDIA

**"Garai batean, arte erlijiosoarekin lotutako lanak salbazioa lortzeko enkargatzen ziren, batez ere"**

**MARI JOSE ARANBURU/** ARTE ADITUA

2003-02-21

## HILEKO DATUA

# 98

**BAZKIDE EGIN ZITUEN IAZ SAN JOXEPEK**

San Joxepeko bazkide kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan. Gaur egun, 1.646 bazkide daude elkartean. /2003-02-14




### '...ta segi aurrera' herri plataforma aurkeztu zuten

Otsailaren 8an '...ta segi aurrera' herri plataforma aurkeztu zuten Munibe plazan. Herritar ugari batu zen ekitaldian, "Euskal herri librearen aldeko konpromisoa" hartu zuten herritarrak, hain zuzen ere. Besteak beste, Maite Aristegi, Jose Luis Elkoro, Jesus Mari Garitano, Mila Elortza, Mikel Eguren, Ibai Redondo eta Ainhoa Agirreazaldegi izan ziren ekitaldian. /2003-02-14

### GIZARTE ZERBITZUETAKO TALDEEI LAGUNTZAK

↑ Gizarte Zerbitzuetan diharduten taldeendako 19.989 euroko dirulaguntza izendatu zuen Udalak. /2003-02-21

### NOVEDADES ARETOAREN EGOERA KASKARRA

↓ Aretoaren egoera oso kaskarra izan arren, eramangarriagoa izango litzateke berogailuak piztuko balira. /2003-02-28

## AIPAGARRI



**IÑAKI DE BENITO**
**Txirrindularia**

De Benito bergararra amateur mailako txirrindulariekin lehiatu zen iazko ziklokros denboraldian. David Secorekin-eta asko ikasi zuen. /2003-02-07



**MARIA JESUS UGALDE**
**Sopranoa**

Organo Zikloaren barruan emanaldia egin zuen soprano bergararrak. Aitor Olea organo jotzailearekin batera jardun zuen San Pedro parrokian. /2003-02-14



**DAMASO GALLASTEGI**
**Irakaslea**

Debarroko euskara eta kirol zerbitzuen *Kirola euskaraz* programaren barruan, natura ekintzetako fitxak egin zituen Gallastegi bergararrak. /2003-02-21

LAGUN GARAJEA
ad®
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
ZORIONAK GUZTIOI!
Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20

ERAIKUNTZAK
Artzamendi, S.A.
Gabon zoriontsuak
herritar guztioi!
Burdiñate plaza 6-behea
Tel.: 943 76 27 58 - 943 76 01 53
Faxa: 943 76 01 53
20570 BERGARA

## ALBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### Debagoiena, EAEko hiri bihurtu nahian

Ibarra EAEko "bosgarren hiri" bihurtzea aurreikusi zuen Lurralde Antolakuntza Plana helarazi zieten udalei. Urkulun "eko-hiria" egitea proposatu zuten.
2003-02-07

EUSKAL HERRIAN

### 'Egunkaria'-ri jazarpena

*Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendaria eta beste bederatzi langile atxilotu zituen Espainiako poliziak, ETArekin lankidetza leporatuta.
2003-02-19

MUNDUAN

### Istilu larriak Bolivian, lege bat dela-eta

Lege baten inguruan desadostasunak zirela-eta, istiluak izan ziren Boliviako gobernuaren eta polizien artean. 17 hildako eta 80 zauritu egon ziren.
2003-02-12

## KULTURA




### Roberto Izagirre bergarar onena, Amodiozko gutunen lehiaketan

San Balentin egunean banatu zituen Jardunek Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketako sariak: Iñaki Serranok jaso zuen lehen saria; Uxue Alberdik bigarren saria eta Irakurle Gazteen saria; eta Roberto Izagirre izan zen herriko onena. Sakelako telefono bidezko mezuen irabazlea Gorka Beobide izan zen. /2003-02-21

KIROLA

### Igeri Elkarteko lau neska, Euskadiko Txapelketara

Bergara Igeri Elkarteko Maite Urtzelai, Goiatz Perez, Neritzel Albisua eta Maria Galarraga junior mailako igerilariak Euskadiko Txapelketan parte hartu zuten, Azpeitian. Lau neskak osatutako errelebu taldea hamabigarrena izan zen puntukako sailkapenean. /2003-02-21

ZAHARRAK BERRI

### San Joxepeko ereserkia, Gonzalez eta Labaienen lana

Herriko beste elkarte askok bezala, San Joxepe elkarteak ere ereserkia du dagoeneko. Miguel Gonzalez Bastidak musika jarri zien Markos Labaienek idatzitako bertsoei. San Joxepeko abesbatzak Udal Musika Bandarekin batera aurkeztu zuen ereserkia iazko urrian. /2003-02-21

HIRIGINTZA

### Urteaga kalea astebetez itxita egon zen ibilgailuendako

Bonbulu okindegia zenaren fatxada zatia erori zela eta, Urteaga kalea astebetez itxita egon zen. Etxearen barruko aldearen zati handi bat ere erori zen. Etxea errepidearen kontra zegoenez, Udalak bidea ixtea erabaki zuen, segurtasuna bermatzeko. Etxea eraitsi egin zuten. /2003-02-07

KULTURA

### Urretxindorrak taldeak lan berria atera zuen

Bergarako Urretxindorrak talde ezagunak CD berria atera zuen. *Urretxindorrak, Bergara 2003* izeneko disko berrian, aurreko diskoetan argitaratutako kantu zaharrak eta zentsuratuak izandako beste bost jaso zituzten. Gure Ametsa elkartean egin zuten aurkezpena. /2003-02-14



**1966. urtean sortu zuten taldea eta zazpi urtean bost single grabatu zituzten.**

EGUNKARIA

### 'Egunkaria'-ren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak

*Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak. EAJ-EAren eta Bergarako Sozialista Abertzaleen aldeko botoekin egin zuen aurrera mozioak; PSE-EE alderdiak mozioaren aurka bozkatu zuen. Horrez gain, hainbat mobilizazio egin zituzten herrian. /2003-02-28

ibili
1942az gero
San Juan auzoa
BERGARA
943 76 35 44 Faxa: 943 76 51 39
Zorionak bergararroi!



Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62
Zorionak
eta
urte berri on!

# MARTXOA



*"Pintxoak artelanak dira, sinpleago edo landuago egin daitezke"*

**MANU HERRERO**/ SUKALDARIA

2003-03-14



*"Erretiratuak bizimodu berria asmatu beharrean izaten dira"*

**ESTIBALIZ ANDRIO** / GERONTOLOGOA

2002-01-18

## HILEKO ESALDIA

**"Argi dugu proiektu berriak 'Euskaldunon Egunkaria'-ren oinarri berak izan behar dituela"**

**AITOR GANTXEGI** / KOMERTZIALA

2003-03-28

## HILEKO DATUA

# 327

**HARPIDE LORTU NAHI 'EGUNKARIA'-K HERRIAN**

Proiektu berriari ekiteko harpide kanpaina hasi zuten *Egunkaria*-ko langileek. 327 harpide lortu nahi zituzten. /2003-03-28




## Babestutako etxeak inauguratu zituzten

Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua Bergaran izan zen San Antonioko babestutako etxeak inauguratzen.

Etxebizitza horien zozketa 2002ko martxoan egin zuten, eta hainbat arazo tarteko, lanak nahi baino gehiago luzatu ziren. Promoziozko 18 etxebizitza banatu zituzten.

Aurkezpenean Madrazok zera adierazi zuen: "Gaur egun horrelako etxebizitzak kalitatezkoak dira, lehengo mitoa apurtu egin da eta bestelako etxebizitza on batzuk prezio onean eskuratzeko aukera daukate. EAEn babestutako etxebizitzen ehunekoa %25ekoa da eta Estatuan, berriz, egiten diren 100 etxebizitza bakoitzeko bederatzi dira babestutakoak. Horrek erakusten du gurean zer-nolako sentsibilizazioa dagoen gaiarekin". /2003-03-21

**'EUSKALDUNON EGUNKARIA'-REN ALDE LANEAN**

↑ *Egunkaria*-ren aldeko batzordea sortu zuten herrian. Helburuetako bat: harpidedunak lortzea. /2003-03-28

**DEBAGOIENEKO OSPITALEAN GAZTELANIAZ**

↓ Ospitalera deituz gero, telefonoaren beste aldean emakumezko ahotsak erantzuten du, gaztelaniaz. /2003-03-21

## AIPAGARRI



**UXUE RODRIGUEZ**
**Abeslaria**

Uxue *Betizu*-k antolatutako lehiaketan abeslari onena aukeratu zuten beste hiru neska-mutikorekin batera Betizu musika taldea osatzeko. /2003-03-07



**MIGUEL ANDUEZA**
**Aita domingotarra**

Andueza Adic gobernuz kanpoko erakundeak abian jarri nahi zuen proiektu berria udaletan aurkeztera etorri zen El Salvadortik hona. /2003-03-21



**AITOR GANTXEGI**
**Komertziala**

Komertzial ziharduen *Egunkaria*-n, baina itxi zutenetik beste zeregin bat izan zuen: proiektu berriaren aldeko batzordea eratzea herrian. /2003-03-28

Ford
Berria Garajea
Mekanika • Elektrizitatea • Karrozeria
Amillaga 49 • San Lorentzo Industrialdea
Tel. 943 76 24 43 • Faxa 943 76 22 43
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
Zatoz FocusC-MAX berria ikustera!




P. Manso
OPTIKO OPTOMETRISTAK
quiksilver.com
Irizar Pasealekua 2
Tel.: 943 76 27 86

## ALBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### 64 eguneko greba bukatu Chinchurretan

Oñatiko Chinchurreta enpresako langileek 64 eguneko greba luzea bukatutzat jo zuten, soldata politikan aldaketa batzuk lortu ondoren.
/2003-03-11

EUSKAL HERRIAN

### Batasuna legez kanpo utzi zuten

Batasuna alderdia legez kanpo utzi zuen Espainiako Auzitegi Gorenak, Espainiako Gobernuaren Alderdien Legearen aurka zihoala leporatuta.
/2003-03-17

MUNDUAN

### Saddam Husseinen aurkako erasoa hasi

Hainbat atzerapen eta saiakera diplomatikoren ondoren, AEBek Iraken aurkako erasoa hasi zuten, Erresuma Batua eta Espainia aldeko zituela.
/2003-03-19

## KULTUR ONDAREA



### Santa Marina zaharberritzen

Santa Marinako erretaula nagusia eta beste sei txikiago zaharberritzen hasi ziren. Orain dela urte batzuk, erretaula nagusiaren egitura egokitu eta egonkortu egin zuten. Hori horrela, aurten, batik bat, garbitze lana egin dute erretaula guztietan. Urteen poderioz eransten joan zitzaien hautsa garbitzeaz gain, erretauletako egurrari berniza kendu zioten berezko egoeran lagatzeko, eta xilofagoen kontrako tratamendu berezia eman zioten. Horrez gain, irudien kasuan, horiek ere garbitu egin zituzten, eta irudi polikromatuen kasuan, originalak ez ziren margoak kendu zizkieten. Lanek hiru hilabete iraun zuten eta Restauraciones Siglo XXI enpresak egin zituen. /2003-03-07

ASTEKO BERRIAK

### Bedelkar dendarien elkarteko bazkideen kopuruak behera

Bedelkarren eta hainbat dendari txikiren iritziak jaso ziren martxoaren 14ko BERRIGARAn, herriko denden egoeraren berri izateko. Bai Bedelkarko ordezkariek bai dendariek ere kezka nagusi bat azaldu zuten: azken urteotan mugimendu txikia dabilela denda txikietan. /2003-03-14

KIROLA

### Futbola utzi eta entrenatzaile lanetan hasi zen Garitano

Asier Garitano bergararra, 10 urtez futbolean jardun ondoren, jokatzeari utzi eta entrenatzaile lanetan hasi zen, 2.B mailako Alacant taldean. Asierren helburua zen taldea igoera *play-off*-etarako sailkatzea. Azken taldea hirugarren mailako Benidorm izan zuen. /2003-03-14

KIROLA

### Beti-Busti taldea hirugarren izan zen St. Pee de Bigorren

Beti-Busti piraguismo taldea hirugarren sailkatu zen otsailaren 23an St. Pee de Bigorren jokatutako Euskadiko Kopako ur bizietako proban, Atletico San Sebastian eta Irungo Santiago-tarrak taldeen atzetik. Banaka ere emaitza onak lortu zituzten Beti-Bustiko ordezkariek. /2003-03-07

KULTURA

## Angiolillo taldea kontzertu bat emateko batu zen

'...ta segi aurrera' plataformak Angiolillo taldeko lau kideak batu zituen kontzertu bat emateko. Aspaldiko taldea berriz ikusi eta entzuteko aukera izan zen Pol-Pol tabernan. Iñigo, Esteban, Torretxo eta Mutxi berriz batu eta Angiolillo taldearen zuzeneko musika eskaini zuten. 1987an sortu zen Angiolillo taldea, eta euren sorterrian emandako kontzertuez gainera, inguruko herri askotan egin zituzten emanaldiak, Arrasaten, Soraluzen, Ondarroan, Lekeition eta Bilbon, besteak beste. Horrez gainera, bi maketa grabatu zituzten, baita bideoklip egin bat ere. /2003-03-28



Bi maketa grabatu zituzten.

ASTEKO BERRIAK

### Geroz eta gazte gehiagok alokatzen dute lokala

Martxoaren 21eko BERRIGARAn herriko gazteen lokalak izan ziren hizpide. Azkeneko hiruzpalau urteotan hedatuz joan da gazteen artean lokala errentan hartu eta hura koadrilaren gotorleku bihurtzeko ohitura. Parkean edo tabernan egon beharrean, lokalean egoten dira. /2003-03-21

kiñu
argazkilariak
DIGITAL MUNDUA ZURE ESKURA
13x18 neurriko kopiak
0,29 eurotik aurrera
Gabon zoriontsuak !!
Barrenkale 35 • Tel./Faxa: 943 76 58 05 • BERGARA

ALURA, S.L.
ZORIONAK DENOI!

MEKANIZAZIORAKO ALTZAIRUA
ALTZAIRU HERDOILGAITZA
TORLOJU HERDOILGAITZA
ESTANPAZIORAKO ALTZAIRU HERDOILGAITZA
SOLDADURA HERDOILGAITZA
ALUMINIOA
ISO 9001 DNV CERTIFICATED FIRM
HAITZ ITURRI 6 (P. K. 267)
20570 BERGARA
Gipuzkoa
Tel. 943 76 02 50
Faxa. 943 76 03 15
e-maila: alura@logiccontrol.es

# APIRILA



*"Bergarako Udalean ez dago eta ez da inoiz gestio planik egon"*

**JESUS MARI GARITANO** / BSA

2003-04-04



*"EAJ-EAren eta SAren erdibideko puntu baten izan gara gai askotan"*

**FRANCISCO JAVIER GARAI** / PSE-EE

2003-04-04

## HILEKO ESALDIA

**"Familia baten moduko adminis-trazioa eskatzen du Udalak, eta ezin da denera heldu"**

**VICTORIANO GALLASTEGI** / ALKATEA

2003-04-04

## HILEKO DATUA

**9**

**ZOZKETATU ZITUZTEN BABESTUTAKO ETXEAK**

San Antonion eraikitzen ari ziren babestutako bigarren etxebizitza blokeko bederatzi etxebizitza zozketatu zituzten. /2003-04-16*



### Ganadua, Eusko Labela eta artisauak Erramu-zapatuko ferian

Goizean goiz hasita, abelburuak, Eusko Labeleko produktuak eta makineria ugari ikusteko aukera izan zen Erramu-zapatuko ferian. Artisauak ere ugari izan ziren, bi gunetan banatuta. Batetik, 30 artisau inguru San Martin plazan egon ziren, eta, bestetik, beste 30 artisau postu Xabier Maria Munibe plazan. Lehiaketako 32 txorimaloak Ibargarain egon ziren ikusgai. /2003-04-11

**KORRIKAREN HAMAHIRUGARREN ALDIA**

↑ Apirilaren 6an iritsi zen Korrika Bergarara. Euskararen alde korrika egiteko aukera izan zen. /2003-04-11

**MUSIKA ENTSEGURAKO LOKALAK FALTA**

↓ Herriko musika taldeek entseatzeko orduan duten lokal gabeziaren gainean kexatu ziren gazte batzuk. /2003-04-11

## AIPAGARRI



**JOKIN ORMAETXEA**
**Txirrindularia**

Caja Rural taldeko Ormaetxea azkoitiarrak irabazi zuen Gorlako Igoera. Hiru lagun heldu ziren ihes eginda. Ormaetxeak irabazi zuen esprintean./2003-04-04



**IMANOL CORDOVILLA**
**Ikaslea**

Imano Cordovilla mutikoak irabazi zuen Kultura Sailak antolatutako Pazkoetako Kartel Lehiaketa. Bere lana 22 lanen artetik aukeratu zuten. /2003-04-11



**LUIS PEÑA**
**Erretiratua**

Luis Peña Udal langilea erretiratu berri zela eta, haren lankideek omenaldia egin zioten. 38 lagun elkartu ziren eta giro ezin hobean afaldu zuten. /2003-04-11

EAJ
PNV

Gabon zoriontsuak eta urte berri on guztioi

BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00
TABERNA Tel. 943 76 49 33
San Pedro 4, BERGARA






•Gosariak
•Bokatak
•Egunkariak
•Bertako opilak
•Kafetegia
•Terraza

EGUNERO GOIZEKO 07:00ETATIK ZABALIK

URTE BERRI ON!

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

**Obradorea:**
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

# Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia


Ate irristagarriak


Parket flotatzailea





Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa




AZKARATE
AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



## OGI KLASEAK

BETIKOAK

Zoladun labe errefraktarioan erretakoak:

- Baserriko ogiak
- Sobatuak/Espainolak
- Sopakoak
- Opilak

OGI BERRIAK

- Txapatak
- Baguetteak
- Erromanitoak
- Erdi-erreak

OGI BEREZIAK

- Zekale-ogia edo integrala
- Laxantea
  (belarrekin egindakoa)
- Alemana
  (bost gari motarekin egindakoa)
- Sojazkoa
- Artozkoa
- Intxaurrez eta mahaspasez egindakoa
- Moldeko ogia:
  integrala, egunerokoa eta naturala



## KONDE PANADEROKUA



Toki eder plaza 3 • 943 76 14 87



Burdiñate 1 • 943 76 02 57

Ondo hasi urte berria

## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Euskal unibertsitate baten eske Oñatin

Ehunka ikasle, guraso eta irakasle bildu ziren Oñatin, Euskal Unibertsitate Nazionala eskatzeko. Talde eragileak 30.000 sinadura zituen ordura arte.

2003-04-11

▸ EUSKAL HERRIAN

### Jorge Oteiza hil egin zen, pneumoniaz

Jorge Oteiza eskultore handia hil egin zen, 94 urte zituela, pneumoniaz. Arantzazuko Basilikako apostoluak eta pietatea dira haren lan handienetariko bi.

2003-04-09

▸ MUNDUAN

### Kartzela zigorrak Kubako disidenteei

Kubako gobernuak 15 eta 27 urteko kartzela zigorrak ipini zizkien Fidel Castroren erregimenarekin desadostasuna azaldu zuten hainbat kubatarri.

2003-04-07

## GIZARTEA



### On Serafin Esnaola herriko seme izendatu zuten

On Serafin Esnaola zena herriko seme izendatzea erabaki zuen Udalak osoko bilkuran. EAJ-EA, BSA eta PSE-EE alderdien oniritzia jaso zuen proposamenak. Erabaki horrekin On Serafini egindako lan guztia eskertu nahi izan zioten. Herriko semetzat hartzeaz gainera, Algodoneran sortuko den auzoan kale edo plaza bati haren izena jartzeko erabakia ere hartu zuten. /2003-04-04

KULTURA

### 'Egunkaria'-ren aldeko eguna antolatu zuen gaztetxeak

Gaztetxeak eta Txapa Irratiak antolatu zuten *Egunkaria*-ren aldeko eguna. Zapatu arratsalde eta gauean izan ziren ekitaldiak, gaztetxean eta San Martin plazan. Besteak beste, sagardoa eta txorizoa egon ziren plazan, eta batutako dirua *Egunkaria*-rendako bideratu zuten. /2003-04-04

KIROLA

### Axen Garitanok irabazi zuen txakur leren lasterketa

Axen Garitano bergararrak irabazi zuen Gorlan jokatutako txakur leren lasterketa. Garitanok sei segundoko aldea atera zion bigarren sailkatu zen Iker Ozkoidi nafarrari. Partaideek 9,5 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten, Gorlako kantinatik Trekutzerainokoa. /2003-04-16

ASTEKO BERRIAK

### Herriko tabernariak kaleko giroa suspertu nahian

Herriko hainbat tabernari (20 inguru) kaleko giroa berpizteko ahaleginean dabiltza. Horretarako, tabernarien elkarte bat eratzeko lanean hasi ziren. Kaleko giroa pizteko kultura ekitaldiak antolatzea izango da elkarte horren zeregina, besteak beste. /2003-04-04

ASTEKO BERRIAK

### Paulo Elkororen egoera salatzeko taldea osatu zuten

Paulo Elkoro gaztearen egoera salatzeko taldea osatu zuten haren senitartekoek eta lagunek. Taldeak bi helburu nagusi ditu: batetik, herritarren artean Paulo Elkororen egoeraren berri zabaltzea eta, bestetik, haren baldintza "kaskarrak" hobetzeko erakundeetara jotzea. /2003-04-04



Paulo, hirugarrena ezkerretik, koadrilarekin egindako argazki batean.

HAUTESKUNDEAK

### Hauteskundeetarako zerrendak aurkeztu zituzten alderdiek

Maiatzeko hauteskundeei begira, hauteskundeetarako zerrendak aurkeztu zituzten alderdiek. EAJk eta EAk biek batera aurkeztu zuten zerrenda, eta PSE eta IU-EBz gainera, bi alderdi berrik aurkeztu zituzten zerrendak: Aralarrek eta Bergara Aurrerak, hain zuzen ere. /2003-04-16

EVSKO S.A.
Urte berri on!
Makina-erremintako laguntzailea • Doitasunezko multzoak
Amillaga 7 · 147 pk · 943 76 21 41 / 76 46 05 · Bergara

ROTULOS ZABALETA
Mota guztietako errotuloak
Zorionak eta Urte berri on
Telf. 943 76 57 34 Faxa 943 76 58 53 Mobila 689 54 81 83 BERGARA
r-zabaleta@euskalnet.net

# MAIATZA



*"Kanpoan entrenatu beharrak diru galerak ekarri dizkigu"*

**BITTOR ALBERDI** / IGERI ELKARTEA

2003-05-23



*"Toki ezezagunei diegun beldurra alde batera laga behar dugu bidaiatzeko"*

**ALVARO MUÑOZ** / BIDAIARIA

2003-05-23

## HILEKO ESALDIA

**"XX. mendeko industria garapenak errementarien eta ferratzaileen gainbehera ekarri zuen"**

**IÑAKI ARANA** / IDAZLEA

2003-05-30

## HILEKO DATUA

**30**

**URTE HAURREN EUSKAL JAIA OSPATZEN**

Aurten 30 urte bete dira herrian Haurren Euskal Jaia ospatzen dela. Ekainaren 1ean izan zen aurtengo ekitaldia. /2003-05-30




### Udalak webgunea estreinatu zuen: 'www.bergara-udala.org'

Herriaren eta Udalaren gaineko informazio ugari du eta Goiena Komunikazio Zerbitzuek garatutako eta kudeatutako webgunea da. Zope web aplikazioen zerbitzaria du oinarrian; hau da, administrazioa herritarrengana hurbiltzeko aukera hoberenak eskaintzen dituen softwarea. Gunea sortu zuten Udalarekiko hartu-emanak areagotzeko eta errazteko helburuarekin. /2003-05-16

**EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA**

↑ Euskararen normalizazioaren arloan sakontzea helburu duen plan estrategikoa onartu zuen udalbatzak. /2003-05-16

**HAUTESKUNDE EGUNEKO ATXILOKETA**

↓ Jose Mari Etxaniz atxilotu zuen Ertzaintzak, Bergara Aurrera plataformaren kartelak jartzeagatik. /2003-05-30

## AIPAGARRI



**RACHAEL OLABARRIA**
**Futbolaria**

Euskadiko Selekzioarekin jokatu zuen Espainiako Txapelketan. Bestalde, Europako Txapelketan izan zen Espainiako Selekzioarekin. /2003-05-16



**BINGEN DE PEDRO**
**Margolaria**

Natxo De Vicente eta Juan Carlos Cardenasekin batera, Bingen de Pedro bergararrak Esloveniako hiriburuan, Ljubljanan, erakusketa egin zuen. /2003-05-23



**IÑAKI ARANA**
**Idazlea**

Iñaki Aranak *Burdina: errementariak eta perratzaileak* izeneko liburua argitaratu zuen. Ekainaren 5ean aurkeztu zuen liburua Bergarako udaletxean. /2003-05-30

"EGUZKI - ALDE" S.L.

Zerrategia

Labegaraieta • Tel. 943 76 11 06 / 943 76 00 80

Zorionak eta urte berri on!



Urte berri on!

GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • Faxa: 943 76 32 52 • BERGARA

## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Alai zinemak ateak ixtea erabaki zuen

Arrasateko Alai zinemak ateak itxiko zituela jakinarazi zuen. Bergarako Novedades-ek erabaki bera hartu zuen, baina atzera bota zuen azkenean.
2003-05-25

▸ EUSKAL HERRIAN

### Udal hauteskunde ezohikoenak

Euskal Herriko inoizko udal hauteskunderik ezohikoenak egin ziren. Herri plataformei parte hartzeko debekuak markatu zituen hauteskundeok.
2003-05-25

▸ MUNDUAN

### 40 hildako Marokon, atentatuan

Marokon, Casablanca hirian, 40 hildako utzi zituen hiru terrorista suizidak egindako bonbardaketa batek, Espainiako Etxea delako egoitzan.
2003-05-16

## POLITIKA




### Hauteskundeak 2003: Gallastegik alkatetza lortu zuen, berriz ere

Victoriano Gallastegik alkatetza lortu zuen laugarrengoz, azken Udal hauteskundeetan. Horrez gain, Aralarrek estreinakoz aurkeztu eta lau zinegotzi eskuratu zituen. Bestalde, beste alderdi bat ere satu zen Udalean: Ezker Batua, hain justu ere. Bergara Aurrera herri plataformaren alde 1.828 lagunek egin zuten, eta boto baliagarri izan balira 3 zinegotzi lortuko zituzketen. /2003-05-30

KIROLA

### Eguzkitza-Erauskin bikotea Bergara Hiriko txapelduna

Urrizelki eta Retegi 22 urtetik azpikoen mailan eta Eguzkitza-Erauskin nagusietan izan ziren Bergara Hiria pilota txapelketako irabazleak. Aspaldiko partez Bergarako Udal Pilotalekuko harmailetan ikusle ugari egon ziren. 600 bat lagun batu ziren finalak ikusteko. /2003-05-30

ASTEKO BERRIAK

### 'Bost eseak' metodologia Miguel Altuna Institutuan

Miguel Altuna institutuak *Bost eseak* deritzon programa japoniarra garatu eta ezarri zuen. Antolaketa, ordena eta garbitasun sakonago eta hobea lortzea du helburu programak. Taldelanean oinarritzen da, eta langileek eta ikasleek lankidetzan garatu zuten. /2003-05-30

KULTURA

### Gabero abesbatza irabazle izan zen habanera lehiaketan

Torreviejako Infantil eta Gazte Mailako IX. Habanera Lehiaketa Nazionalean jaso zuen lehen saria Gabero abesbatzak; gazte mailan, hain justu ere. Lehiaketa hiru egunez izan zen, maiatzaren 1ean, 2an eta 3an, eta Estatu osoko hainbat talderekin lehiatu ziren. /2003-05-16

KULTURA

### Emakumeen futbolaren aldeko moda desfilea

Hainbat futbolzalek herrian emakumeen futbola bultzatzeko moda desfilea antolatu zuten Jam aretoan. Desfilerako sarrerarekin atera zuten dirua zeregin horretarako bideratu zuten. 80 lagun inguruk desfilatu zuten, eta bederatzi dendatako jantziak erakutsi zituzten. /2003-05-16

ASTEKO BERRIAK

### 'Egunkaria'-ren proiektu berria aurkeztu zuten herrian

Fermin Lazkano *Egunkaria*-ko gerente ohiak aurkeztu zuen proiektu berria eta ekainaren erdialdean kalean egongo zela adierazi zuen. Proiektua abiarazteko lehen urratsa Euskarazko Komunikazio Taldea SA sortzea izan zela azaldu zuen, eta *Egunkaria*-ko 151 langilek egindako 60.350 euroko ekarpenarekin sortu zutela. Dena dela, gaineratu zuen kopuru hori abiapuntua baino ez zela, eta helburua kapital hori handitzea zela. Horretarako ekin zioten *Berria berri* akzio salmenta kanpainari. 300 eta 50 euroko akzioak egon ziren salgai. /2003-05-23

KULTURA

### Maite Toledok eta Arritxu Barrusok saria jaso zuten

Maite Toledok Huitziko Kontseiluak (Nafarroa) antolatzen duen Orixe saria jaso zuen, poesia alorrean. Arritxu Barrusok, berriz, La Rata India antzerki taldeko kide da, eta taldeak gazteleniazko lan onenaren saria eskuratu zuen Donostiako Gazte Antzerki Topaketetan. /2003-05-30

Cronicinc
ESTALKETA GALBANIKOAK
Urte berri on danoi!
Amillaga 1, 8. pabilioia 283 posta kutxa Bergara Tel.: 943 76 54 44 Faxa: 943 76 57 27

Ipiñarri
zerrategia S.L.
IBARRA Z/G. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.


# EKAINA



*"San Joxepe elkarte bizia da, urtean zehar ekitaldi asko egiten dituzte-eta"*

**XABIER IBARTZABAL**/ IDAZLEA

2003-06-13



*"Eibarko jokalarien morala aldatzea da gure lehen helburua"*

**JUANJO ARRIETA**/ENTRENATZAILEA

2003-06-20

## HILEKO ESALDIA

**"Herriko gune batzuetan etxe asko dago, eta bizi-espazioa errespetatu behar da"**

**BORJA BARRUTIABENGOA** /ARKITEKTOA

2003-06-27

## HILEKO DATUA

**40**

**GRADURA IRITSI ZEN TERMOMETROA**

Aspaldiko udaberririk beroena izan genuen ekainaren 20an, eta uda ere horrelakoxea etorri zitzaigun. / 2003-06-27



### Jendetzarik ez ibili arren, jai giroa izan zen nagusi Pazkoetan

Herrian geratu zirenen ahotan izan zen Pazkoetan jende gutxiago ibili zela. Jende askok nahiago izan zuen egun horiek kanpora joateko aprobetxatu. Luar Na Lubre taldeak emandako kontzertura joandakoek ikuskizunarekin gozatu zuten eta barrakek, rock kontzertuek, zezenketek eta dantzaldiek ere ikusmina piztu zuten. Herri bazkaria erabat arrakastatsua izan zen. /2003-06-13

**HERRIKO UR ZIKINAK JASOTZEKO KOLEKTOREA**

↑ Mekolalden ur zikinak jasoko dituen kolektorearen hodiak sartzen hasi ziren. /2003-06-20

**OINEZKOEN LEKUAN AUTOAK**

↓ Autobus geltokiaren parean oinezkoendako espaloia zegoen, baina autoek aparkatzen zuten bertan. /2003-06-20

## AIPAGARRI



**AGUSTIN TOLEDO**
**Atleta**

Toledo bergararrak zilarrezko domina lortu zuen, pisu jaurtiketan, Bartzelonan jokatu zen Gutxituendako Espainiako Atletismo Txapelketan. /2003-06-20



**ANSELMO ARRIETA**
**Abadea**

Anselmo Arrietak 50 urte bete zituen lehenengo meza San Pedron esan zuela, eta urteurrena ospatzeko aspaldiko partez San Pedron esan zuen meza. /2003-06-27



**BORJA BARRUTIABENGOA**
**Arkitekto teknikoa**

2002ko ekainean Arkitektura Teknikoko ikasketak amaitu zituen. Aurtengo ekainean Ikasketa Bukaerako Lehen Sari Nazionala jaso du. /2003-06-27

AITEC, S.L.
ESTALDUREN KALITATE - KONTROLA
Gabon zoriontsuak !
• LABORATEGI INDUSTRIALEN EKIPAMENDUA
Harruriaga 12 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 08 09 • Faxa: 943 76 43 19 • E-maila: asintec@airtel.net

IRALA Bideoak
VIDEOMATIC Plus
DVD
Urte berri on!

• Filmak eskuratzeko hiru makina
• Kafe-makina
• Gozoki-makina
Eta orain alokatu zure etxetik
www.videomatic.com/irala
Simon Arrieta, 3. Tel.: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33. E-maila: video_irala@jet.es




Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

ELKAR
ELEKTRAGINTZA
ZURE ZERBITZURA!!
Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00
Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA


Euxebio II
Ariznoa
Iraho
Mitor
Dixula
Kafe
Frontoia


Usoa
Tito's
Oilagorra
Maxim's
Zer nai

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Zorionak eta urte berri on!

Zorionak eta urte berri on guztioi!



ANDUZU
ANDUZU S.L.
Simon Arrieta 1, 4-C
BERGARA
Mobila: 607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa
Era guztietako kargak

## ALBISTE IZAN ZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Gerran fusilatutakoei omenaldia

36ko gerran fusilatutako 105 debagoiendarren omenez monolitoa inauguratu zuten. *Arrasate 36, belaunaldi etena* liburua atera zuten geroago.

2003-06-11

▸ EUSKAL HERRIAN

### Realak bigarren amaitu zuen Ligan

Real Sociedad futbol taldeak bigarren amaitu zuen Espainiako Ligan. Real Madril taldeak irabazi zuen Liga, txuri-urdinekin lehia bizian egon ondoren.

2003-06-22

▸ MUNDUAN

### Pneumonia atipikoa bukatutzat jo zuten

Txinan eta Hong Kongen sortutako pneumonia atipiko izurritea bukatutzat jo zuen Osasunerako Mundu Erakundeak. Martxoan sortu zen izurritea.

2003-06-11

## POLITIKA



### Udalbatza osatu zuten

Garrasi artean eratu zen udalbatza berria. Iragarri zuten moduan, Bergara Aurrerako ordezkariak bilkuran egon ziren euren eserlekuak aldarrikatzeko. Herri plataformaren aldeko herritar ugari ere udaletxeko areto nagusian egon ziren. Victoriano Gallastegik haien garrasien artean hartu zuen alkate kargua. Bergarako udalbatza hamazazpi zinegotzik osatzen duten arren, hamasei eserleku besterik ez zen bete, eta badirudi hala funtzionatuko duela aurrerantzean. Kontua da Aralar alderdiko lau zinegotzietatik hiruk bakarrik hartu zutela kargua; Juan Martin Elexpuru ez zen bilkuran egon. Laugarren agintaldia da Gallastegi alkate dela. /2003-06-20

KULTURA

### 509 parte-hartzaile Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketan

Epaimahaiaren arabera, nabarmentzekoa izan zen partaidetza. 509 lagunek hartu zuten parte, bost taldetan banatuta: 1. mailan Uxue Lazkanok irabazi zuen; 2. mailan Ane Barraganek; 3. mailan Idoia Larrañagak; 4. mailan Hiart Bolinagak; eta 5. mailan, Garazi Olabarriak. /2003-06-13

ASTEKO BERRIAK

### Igerileku txikia bakarrik zabaldu zuten bainurako

Udako denboraldiarekin batera zabaldu zuten kanpoko igerilekua eguzkia hartzeko. Bainurako putzu txikia besterik ez zegoen. Alkateak azaldu zuenez, igerileku handia ez zuten zabaldu bi filtroetako bat desegin egin zelako, eta bakarrarekin ezinezkoa zelako irekitzea. /2003-06-20

ASTEKO BERRIAK

### Tabernarien Elkarteak jaiak errepikatzeko egitaraua egin zuen

Jaiei jarraipena emateko asteburua antolatu zuen Tabernarien Elkarteak. Besteak beste, kontzertuak egon ziren San Martin plazan. Ekitaldiok abiapuntua zirela adierazi zuten; tabernarien asmoa da asteburuetan aisialdia osatu eta herria pizteko ekitaldiak antolatzea. /2003-06-13

KIROLA

### Aitor Zabaleta izan zen nagusi Gorlako Igoeran

Aitor Zabaletak 2 minutu, 29 segundo eta 38 ehuneneko denbora egin zuen Gorlan, eta alde dezente atera zion bigarren sailkatu zen Jesus Santamariari (2:39:14). Hirugarren postua, berriz, Josu Ugartek lortu zuen, 2:43:80 denborarekin. Honenbestez, oraindik ere Pantxo Egozkue gidari nafarrak 1993. urtean lortu zuen errekorrak (2:21:62) indarrean segitzen du. Josu Ugartek ikusle bat harrapatu zuen Ugarrixa baino lehen, eta ospitalera eraman behar izan zuten, hanka bat apurtuta zuten-eta. Antolatzaileen arabera, 3.000 ikusle egon ziren igoera ikusten. /2003-06-20



Zabaletak erraz irabazi zuen Gorlan.

ASTEKO BERRIAK

### Betiko enpresako langileak mugagabeko greban izan ziren

Betiko SA enpresako langileek mugagabeko greba hasi zuten. Negozitzen ziharduten Zuzendaritzarekin; hala ere, adostasunik egin ez, eta grebari ekitea erabaki zuten. Hiru eskari zituzten langileek: soldataren igoera, lan jarduna murriztea eta hilero 30 euroko osagarria. /2003-06-27

ZAIAZKO
TELEKOMUNIKAZIOAK
vía digital
Orain, Via Digital-ekin, nahi duzuna bakarrik ordaindu
Eta orain, gainera, dekorazioareko opariekin
Telesforo Aranzadi 3, BERGARA. 943 76 10 66
Ondo hasi urte berrixa!!

Industriak
Azkoin
Urte berri on guztioi!
Amillaga 43, San Lorentzo industria poligonoa. 109 posta kutxa Tel.: 943 76 10 52 Faxa: 943 76 98 20 Bergara

# UZTAILA



*"Eibar taldeko jokalarien portaera erabakigarria izan da mailari eusteko"*

**JUANJO ARRIETA**/ ENTRENATZAILEA

2003-07-04



*"AEBetan parke natural asko dago, eta primeran zainduta daude"*

**EDURNE ARENAZA** / BIDAIARIA

2003-07-18

## HILEKO ESALDIA

**"Gobernu batzordea denez erabakiak hartzeko organoa, hor egon nahi izan dugu Aralarkook"**

**AINHOA LARRAÑAGA** / ZINEGOTZIA

2003-07-18

## HILEKO DATUA

# 180

**MILA EURO INGURUKO AURREKONTUA BKE-K**

Bergara Kirol Elkarteak aurrekontu hori onartu zuen hurrengo denboraldirako. 132.200 euro futbol sailarendako. /2003-07-24



### EAJ-EA eta Aralar alderdiak elkarrekin Udalean

Ekainaren 14an udalbatza osatu eta gero, uztailaren 16ko osoko bilkuran eman zuten udal arduradunek hurrengo urratsa: Gobernu batzordea onartzea, hain justu ere. Hala, EAJ-EA eta Aralar elkarrekin izango dira gobernuan hurrengo lau urteotan. PSE-EE, PP eta EB, berriz, oposizioan izango dira. /2003-07-18

**GAZTETXEA ETA SANTA MARINA**

↑ Bi zaharberritze eta egokitzeren emaitzak ikusteko aukera izan dugu aurten: Santa Marina eta gaztetxea. /2003-07-24

**IGERILEKUEN PREZIOA**

↓ Igerilekuetan iazko prezioei eutsi zieten, zerbitzua nabarmen kaskartu arren. /2003-07-18

## AIPAGARRI



**EDU MURUAMENDIARAZ**
**Dantzaria**

Eduk zuzentzen duen Aukeran dantza taldeak *Izena duen guztia omen da* izeneko lana estreinatu zuen uztailaren 12an Donostiako Kursaalen. /2003-07-11



**GURUTZ LARREA**
**Txirrindularia**

Lokatza Sumofic taldeko Gurutz Larrea txirrindulari antzuolarrak Urnietako IX. Peio Lizarribar saria irabazi zuen uztailaren 11n, kadete mailan. /2003-07-18



**EVA ALZAS**
**Futbolaria**

Eva Alzasek golegile onenaren saria eskuratu zuen Ipintzako Futbol Txapelketan. Bere taldea, Ogizun, izan zen txapelketako irabazlea senior mailan. /2003-07-18

**Estella ortopedia**
Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA
Matxiategi 5, BERGARA. Telefonoa: 943 76 19 63
• Etxerako laguntza teknikoa
Kirol Ortopedia • Oinetakoak • Mastektomia
• Neurrira eginiko plantillak


RPS 421/97

IMPRESPAL, C.B.
ARTE GRAFIKOAK
• Offset
• Enkuadernazioa
• Koloretako fotokopiak
Komenio kalea 2 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 00 01 • Faxa: 943 76 22 41
e-posta: imprespal@euskalnet.net

## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Baserriko ohitura zaharrak berpiztu

Antzina zelan egiten zen erakusteko, gari-jotze eguna antolatu zuten Antzuolan. 20 urte zela egiten ez zen tradizioa berreskuratu zuten.

2003-07-12

▸ EUSKAL HERRIAN

### Tourrak ez zuen euskararen alde egin

Tourraren antolatzaileek bertan behera utzi zuten Pau-Baiona etapan euskara erabiltzeko agindua, Europako Alderdi Popularrak iruzurtzat jo ondoren.

2003-07-06

▸ MUNDUAN

### 600 hildako Liberiako gatazka larrietan

Liberiako deklaratu gabeko gerra zibileko erasoaldietan 600 zibil hil ziren. Charles Taylor presidentearen aurka altxatu ziren hainbat herritar.

2003-07-21

## KULTUR ONDAREA



### Santa Marina berrinauguratu zuten, zaharberritu eta gero

Uztailaren 20an berrinauguratu zuten Santa Marina parrokia. Miren Azkarate Kultura sailburua, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia, Juan Maria Uriarte gotzaina eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren ekitadian, besteak beste. Herritarrak ere ugari izan ziren. Guztiek aho zabalik begiratu zieten elizako txoko berrituei. /2003-07-24

KIROLA

### Antxintxika taldekoak bikain Donostiako eta Austriako probetan

Antxintxika Triatloi Taldeko zortzi lagunek Klagenfourt-eko Ironman proban parte hartu zuten, Austrian. Julen Garitano izan zen taldeko onena Austrian; 89. postuan sailkatu zen. Bestalde, Unai Alberdi 14. postuan sailkatu zen ekainaren 29an Donostiako Triatloian. /2003-07-11

ASTEKO BERRIAK

### Atzerriko umeak Bergarara etorri ziren uda pasatzera

Azkeneko urteotan moduan, aurtengo udan ere herriko hainbat familiak –lauk, hain justu ere– atzerriko umeak hartu zituzten etxean uda pasatzeko. Errusiako bi mutiko, Ukrainako neskato bat eta Saharako mutiko bat etorri ziren, eta irailera bitartean egon ziren herrian. /2003-07-11

ASTEKO BERRIAK

### Uztailean 370 ume inguru ibili ziren Udaleku Irekietan

Uztailaren 1ean zabaldu zituzten, eta 30era bitartean 370 ume inguruk jardun zuten udalekuetan. Hamabost urte inguru dira Udaleku Irekiak antolatzen dituztela, eta helburu garbi batekin sortu zituzten: neska-mutikoei udan giro euskaldunean ondo pasatzeko aukera ematea. /2003-07-04

KIROLA

### Mongatxurrak taldea areto futboleko ligako txapeldun

Mongatxurrak taldeak 6-3 irabazi zion A Ze Flaxa taldeari areto futboleko finalean. Mongatxurrak taldeak hobeto jokatu zuen eta merezimendu osoz irabazi zuen finala. 2002-2003 denboraldian Mongatxurrak izan zen nagusi, aurretik Kopako finala ere irabazi zuen-eta. /2003-07-04

ASTEKO BERRIAK

### Herri osoa murgildu zen San Martzialeko jai giroan

Egun polita izan zen, ohi bezala. Eguraldia, gainera, portatu zen; ez euririk, ezta bero handirik ere. Gainerakoan, ekitaldiek euren martxa segitu zuten eta ez zen dantzarik, abestirik, kirolik, ezta mezarik falta izan. Jan-edana ere franko, eta gauza guztien gainetik, San Martzialgo zelaietan batutakoen alaitasuna. Goizean meza, hamarretakoa, dantza emanaldia eta bertsolarien saioa izan ziren. Bazkaldu ondoren, berriz, kirolen txanda iritsi zen. Jende askok parte hartu zuen herri-kiroletan; urtetik urtera jende gehiagok ematen du izena sokatiran eta txingetan./2003-07-11

KIROLA

### Fo Fo Fo taldeak irabazi zuen Ipintzako Txapelketako finala

Elgetako Fo Fo Fo taldea izan zen Ipintzako Txapelketako irabazlea. Finalean Bildurbarek Opel Lam taldeari irabazi zion, eta emoziorik ez zen falta izan: hirunako berdinketaren ostean penalti jaurtiketetan nagusitu ziren elgetarrak; hain zuzen ere, 4-3 irabazi zuten. /2003-07-24

Bideluze
ARROPA GARBITEGIA
AMILLAGA 26 POSTA KUTXA 82 BERGARA
TEL.: 943 764 943 FAXA: 943 769 708

Laneko arropa
Mantelak
Mantak
Edredoiak
Alfonbrak
Moketak
Gortinak

Arropa konpontzen dugu

Bordatuak egiten ditugu

Urte berri on!

DECOLETAJES BIOK
Prezisiozko dekoletajea era guztietako materialetan
ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!
Amillaga 6 • 286 posta kutxa • 20570 BERGARA Gipuzkoa • Tel. 943 76 53 29 • Faxa 943 76 41 05

# ABUZTUA



*"Turismo Bulegoan, jendearekin irekia eta atsegina izan behar da"*

**PAKI TORRES**/ TURISMO BULEGOA

2003-08-18



*"Lehenbizikoz bihotzarekin eta bigarrengoz paperekin egin nintzen venezuelar"*

**LUIS UGALDE** / ERREKTOREA

2003-08-18

## HILEKO ESALDIA

**"HIRU sindikatutik laguntza bilatu eta sektorearendako beharrezkoa den estrategia egingo dugu"**

**ESTEBAN MURUAMENDIARAZ** / SINTRAGI

2003-08-16

## HILEKO DATUA

# 42

**GRADU IZAN GENITUEN ABUZTUAREN 4AN**

Abuztuko egun beroena huraxe izan zen. Luis Mari Agirreren arabera, 1983. urtea ezkero ez dugu halako berorik izan. /2003-08-05




### Abuztuan ere lanuzteak egin zituzten Mayc-eko langileek

Uztailean egin zuten lehenengo lanuztea Mayc-eko langileek, Lan Hitzarmena negoziatzen hasi eta zuzendaritzarekin adostasunera iritsi ez zirela-eta. Komiteak orduan iragarri zuen akordiorik egon ezean abuztuan ere greba egunak egingo zituztela, eta halaxe egin zuten. Bi greba egun egin zituzten: bata, abuztuaren 27an eta bestea, abuztuaren 28an. /2003-08-28

**UDAKO TURISTA KOPURUAK GOIA JO DU**

Udako denboraldian 2.500-2.700 kontsulta artean jaso dituzte Turismo Bulegoan azken hiru urteotan. /2003-08-31

**FRAISKOZURIKO BIRIBILUNEA ETA EDUKIONTZIAK**

Fraiskozuritik Bideberrira joan eta biribilunean buelta emateko, edukiontziek enbarazu egiten dute. /2003-08-10

## AIPAGARRI



**PAULO ELKORO**
**Preso politikoa**

Abuztuaren 5ean onartu zituen Nurenberg-eko epaitegiak Espainiako agintariek egindako estradizio eskaerak. Gose greba hasi zuen irailaren 1ean. /2003-08-05



**KOLDO MEDRANO**
**Udaltzaina**

Koldo Medrano bergararra udaltzain berria dugu abuztuaren azkeneko astea ezkero. 16 urtez Eibarren jardun zuen udaltzain lanetan. /2003-08-29



**BORJA PEREZ DE LEZEA**
**Udaltzaina**

Borja Perez de Lezea tolosarra herriko udaltzain berria dugu abuztuko azkeneko astea ezkero. Aurrez, Tolosan eta Arrasaten egin zuen lan. /2003-08-29

PASCUAL
TELEKOMUNIKAZIOAK
Arrasate 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.

UNItec

Liderrak
telefonia mobilean




EGi galmar

Banatzaile ofiziala
Telefónica MoviStar

Ibargarai 5 BERGARA
943 77 70 14 Faxa: 943 77 70 16
bergara@pascualalzuri.com




TREKUTZ S.A.L.
BERGARA

Eguneroko zerbitzua

Agentzia
Bergara: San Lorenzo industrialdea
Tel.: 943 76 17 68 - 943 76 19 86




**SAN MARTIN**
GOIESKOLA
**HAUR HEZKUNTZA (3-6 urte)**
**LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)**
Boni Laskurain 25.
Tel. 943 76 21 47
012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola

**IPINTZA**
GOIESKOLA
**DBH (12-16 urte)**
**BATXILERGOA (16-18 urte)**
Giza eta gizarte Zientziak
Natur eta Osasun Zientziak
Teknologikoia
Boni Laskurain 17-19.
Tel. 943 76 31 42 / 43
012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintzabhi

**M. ALTUNA**
**LANBIDE HEZIKETA**
Erdi Mailako Zikloak (16-18 urte)
Goi Mailako Zikloak (18 urtetik aurrera)
Mekanika
Elektrizitatea
Administrazioa
Plastikoak eta kautxoak
Ibargarai 1.
Tel. 943 76 24 91 / 76 38 40
imaltuna@sarenet.es
www.imaltuna.com

CERTIFIED IQNet
AENOR ER

SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA
Bergarako ikastetxe publikoak

# IRAILA



*"Gazteei opera erakargarri egitea falta da Euskal Herrian"*

**NAROA ENEKOTEGI** / MEZZOSOPRANOA

2003-09-12



*"Azpiko kategorietan berdintasuna da nagusi, diferentzia txikiagoa dago"*

**FERNANDO OREGI** / BKE-KO FUTBOL SAILA

2003-09-19

## HILEKOESALDIA

**"Euskal Herria gure nazioaren alde kulturala da, oinarri kulturala. Baina politikoki nafarrak gara"**

**ERLANTZ URTASUN** / NABARRALDE

2003-09-19

## HILEKODATUA

# 3

**ARROPA BATZEKO JARRI ZITUZTEN EDUKIONTZIAK**

Debagoieneko Mankomunitateak jarritako zerbitzu berria da. Helburua da etxean dugun arropa zaharra jasotzea. /2003-09-12



## Kalean jende ugari San Martinetan

San Martin jai politak igaro genituen: eguraldi ona, jendea tamainan eta ekitaldiak ere franko.

Zapatuko izarra azoka izan zen. Herritarrak pozik, baratzeko produktuen edertasuna ikusita, baita nekazariak ere, salmentak ez zirelako batere txarrak izan.

Danborradak ikusmin handia sortu zuen, ohi bezala, eta ibilaldian barrena zein San Martin plazan jende asko batu zen nagusien danborrada eta haurren danborrada ikusteko.

Txosna batzordeak hainbat ekitaldi antolatu zituen: txosna jarri zuen Munibe plazan, eta horrek jaietako bizitasuna areagotu egin zuen.

Bertako odolostea eta okela dastatzeko aukera izan genuen San Martinetan, baita okela gisatu lehiaketa ikusteko ere. /2003-09-19

**EMAKUME TALDEA HERRIAN**

↑ Herriko hainbat emakumek BEKE elkartea sortu zuten, emakumearen alde lan egiteko asmoarekin. /2003-09-26

**IZARREKO BIHURGUNEA, LOTSAGARRI**

↓ Halaxe definitu zuen irakurle batek Bergaratik Elgetarako bidean dagoen bihurgunea. /2003-09-12

## AIPAGARRI



**JESUS JAUREGI**
**Kofradiakidea**

Erreleino eta Tostoien Kofradiako presidentea da Jesus. San Martin jaietan kofradiako IV. Kapitulua egin zuten Udaleko osoko bilkura aretoan. /2003-09-12



**ANDER MUGURUZA**
**Pilotaria**

Jon Bengoetxea eibartarrarekin bikotea osatuta, Ander Muguruzak Lezoko finala irabazi zuen Larramendi eta Solozabalen aurka, 22-19. /2003-09-19



**ANTON ARRILLAGA**
**Kartel egilea**

Anton Arrillagak irabazi zuen San Joxepe elkarteak urriko Kultur Hamabostaldiari begira deitutako Kartel Lehiaketa. 600 euroko saria jaso zuen. /2003-09-19

Gabon zoriontsuak eta urte berri on herritar guztioi!

EA
eusko alkartasuna

GA
Gazte Abertzaleak

www.euskoalkartasuna.org

Barrenkalea 18
BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 26 81

www.gazteabertzaleak.org

Mizpildi 8
943 76 12 32
BERGARA



Matxiategi 1
943 76 72 73
BERGARA



MIZPILDI
OKINDEGIA

Jai zoriontsuak guztioi!



KOLTXOIAK
%15eko eta %25eko
deskontuarekin

Zatoz
Masterreka 11ko
erakustokira







Barrenkale 23 • Tel.: 943 76 29 65
Masterreka 11 • Tel.: 943 76 58 79

ederTu

Gabon zoriontsuak
bezero eta herritar guztioi



**Saunier Duval**

DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA



AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,
Gotzone Arkarazo higienista
eta Silvia Romero harreragilea

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Inplanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. BERGARA
943 76 00 23
09:00-13:00 eta 17:00-21:00

AEGON
aseguroak
RPS: 139/01

Urte berri on!

## ALBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### Langabezia igo egin zen: %4,70eko tasa

Gipuzkoako langabezia tasaren aldean (%6,30), ibarrak tasa baxua izaten jarraitu zuen, baina iraileko datuak martxoa ezkero altuenak izan ziren. 2003-09-30

EUSKAL HERRIAN

### 'La pelota vasca' filma, arrakastatsu

Txalo beroz hartu zuen Donostiako Zinemaldiak Julio Medemen *La pelota vasca* filma. Ermuko Foroak protesta egin zuen filmaren aurka. 2003-09-16

MUNDUAN

### Suedia ez zen eurogunean sartu

Suediak ezezkoa eman zion euroari, erreferendumean. Anna Lindh euroaren aldeko ministroaren hilketak markatu zituen kanpaina eta erreferenduma. 2003-09-14

## GIZARTEA



### Emakumearen alde lan egingo duen BEKE elkartea sortu zuten

Ekainean sortu zuten BEKE, Bergarako Emakume Kultur Elkartea, eta emakumeendako eskulan eskolak izan dira abiapuntu. Irabazi asmorik gabeko taldea da, eta laster hasiko dira, euren burua ezagutzera ematen. Udalean emakume sailik ez dagoela-eta, emakumeengatik eta emakumeentzat lan egin nahi duen elkartea da. /2003-09-26

ASTEKO BERRIAK

### Gaztetxea zabaldu zuten, abuztuan itxita egon ondoren

Irailaren 12an zabaldu zuten gaztetxea berriz ere, eraikinaren berritze lanak bukatu aurretik. Hasiera batean, egun horretarako lan guztiak bukatuta egotea espero zuten gaztetxeko kideek; arotzeria lanetan izandako atzerapenak hamabost bat egun luzatu zituen lanak. /2003-09-12

ASTEKO BERRIAK

### Txapa jaia egin zuten egoitza eta denboraldi berria zabaltzeko

Irailaren 19an eta 20an Txapa jaia egin zuten irratiko kideek. Denboraldi berriaren hasiera eta gaztetxean egokitutako gune berritik emititzen hasiko zirela ospatu zuten. Egubakoitzean zinema maratoia egon zen, eta zapaturako kontzertua antolatu zuten gaztetxean. /2003-09-19

ASTEKO BERRIAK

### Paulo Elkorok gose greba hasi zuen estradizioa salatzeko

Municheko espetxean zegoen presoa, eta gerta zitekeen estradizioaren aurrean ekin zion gose grebari. Izan ere, Nurenberg-eko epaitegiak onartu egin zituen Espainiak egindako bi estradizio eskariak. Errekurtsoa aurkeztu zuten Alemaniako Epaitegi Konstituzionalean. /2003-09-05

ASTEKO BERRIAK

### Hainbat etxe bota zituzten Zubiaurren eta Arrizuri alboan

Abuztuan barrena hainbat eraispen egin zituzten herrian: alde batetik, Zubiaurre kalean bi eraikin bota zituzten, 4. eta 6. atariei zegozkienak eta 7 zenbakiari zegokiona. Beste aldetik, Unceta jauregiaren lurretan, Arrizuri parkearen ondoan zegoen etxe bat bota zuten. /2003-09-05



Etxebizitzak eraikiko dituzte bi orubeotan.

ASTEKO BERRIAK

### Bergaran bizi diren pakistandarrak hizpide izan ziren

Azken boladan gora egin du pakistandar kopuruak herrian. Lehenengoak duela bost urte etorri ziren, eta gaur egun 50 inguru daude. Estatuko beste herri batzuetatik etorri dira. Lanarengatik dela diote; hemen inguruan gehiago eta hobeto ordaindu dagoelako. /2003-09-26




ELKAR Fotokopiak

- Planoen handitzeak eta txikitzeak
- Ploteoa eta Ecaweoa
- Plastifikazioak DIN A4/A3 eta posterrak
- Koloretako fotokopiak
- Eskaneatzeak koloretan makina digital bidez
- Bulego materiala
- Fax publikoa
- Enkuadernazioak

Urte berri on !

e-posta: elkarcopias@terra.es
Artekale 1 • Tel.: 943 76 02 02
Tel./Faxa: 943 76 58 16

# URRIA



*"Dialogorik gabea izatean datza 'Topeka' film laburraren arrakasta"*

**ASIER ALTUNA 'KIXI'** / ZINEMAGILEA

2003-10-17



*"Trena kentzeak komunikazio arazo handia eragin zuen "*

**JUANJO OLAIZOLA** / TREN MUSEOA

2003-10-31

## HILEKOESALDIA

**"Hain gertu baina aldi berean urrun dago Elosu auzoa; denbora geratu egiten da hara joanez gero"**

**JUAN LUIS BIKUÑA** / KAZETARIA

2003-10-10

## HILEKODATUA

# 25

**ELOSUKO FERIAK BETE ZITUEN URTEAK**

Pilarika egunean, 25 urte egin zituen Elosuko Mendiko Ganadu Feriak. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi izan ziren. /2003-10-10



### Udal tasak igo egingo dira 2004an

Urriaren 16an onartu zuen udalbatzak datorren urterako ordenantza fiskala. Horrela, 2004an %3,5 igoko dira Udalari ordaintzen dizkiogun tasak. Hala eta guztiz ere, hilerria, ura eta ibilgailuen gaineko zerbitzua dira %3,5 gainditzen dutenak. Hilerriaren tarifek %4 egingo dute gora, urarenak %8,59 eta ibilgailuenak, berriz, %8,71. /2003-10-24

ENERGIA BERRIZTAGARRIA IPINTZA INSTITUTUAN

↑ Urtebetean 3.700 kWh-ko sortu eta 3.510 kilo $CO_2$ ekidin zuten Ipintza institutuan. /2003-10-24

UDAL TASAK IGO EGINGO DIRA 2004AN

↓ Ondorioz, datorren urtean gehiago ordaindu beharko dugu Udalak eskaintzen dituen zerbitzuengatik. /2003-10-24

## AIPAGARRI



**AITOR ZABALETA**
**Auto gidaria**

Montecalvoko igoeran nagusitu ondoren, Mendiko Euskadiko Txapelketa eskuratu zuen. Jarraian lortutako seigarren txapelketa du. /2003-10-03



**JUAN LUIS BIKUÑA**
**Kazetaria**

*Iriaun, frantsesen urrea eta Elosu* izeneko liburua egin zuen Juan Luis Bikuñak. Elosu auzoan ibilaldia egin du liburuan, elkarrizketez baliatuz. /2003-10-10



**AINHOA LARRAÑAGA**
**Aralarko kidea**

Zinegotzi kargua laga zuen urriaren 16ko osoko bilkuran. Lan berria eta zinegotzi lanak uztartzeko zailtasunak izan dira kargua uzteko arrazoiak. /2003-10-17

winterthur

Seguruak:
Automobila
Istripuak
Etxebizitza
Komertzioa
Erretiratze planak
Pentsio planak
Osasuna
Bizitza

Zorionak denoi!

Segurai Agentzia CB
Zurradero kalea 6 B
Tel./Faxa: 943 76 17 40
20570 Bergara

TIEN 21

SANToS

Ondo igaro Gabon jaiak!

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA. Tf. 943 76 26 10

## ALBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### 'Mahoma' RIPeko abeslaria hil egin zen

Karlos Agirreurreta *Mahoma*, RIP taldeko musikari arrasatearra, hilda agertu zen Bilbon, etxean. Hileta elizkizun jendetsua izan zen herrian. 2003-10-13

EUSKAL HERRIAN

### 'Egunkaria'-ren auziko atxilotuak, aske

Juan del Olmo epaile espainiarrak aske utzi zituen *Egunkaria*-ren auziagatik atxilotutako bederatzi lagunak, horietatik bost, fidantzarekin. 2003-10-20

MUNDUAN

### Emakume irandar batek, Bakearen Nobel saria

Shirin Ebadi idazle, abokatu eta epaile irandarrari eman zioten Bakearen Nobel saria. 1901a ezkero, sari hori jasotzen duen 11. emakumezkoa zen. 2003-10-09

HIRIGINTZA

### Zubiaurre-Martoko eremuaren gaineko azterketa egin zuten

San Antonioko semaforoan hasi –Zumelaga parean– eta Ozaetako zubirainoko eremua hartzen du kontuan Udalak eskatutako azterketa sozio-urbanistikoak. Eremu horren egoeraren berri jasotzen du egin berri den azterketak, eta hobetzeko hainbat ekimen proposatzen ditu. /2003-10-17

## GIZARTEA



### Duela 75 urte Angiozar eta Ubera Bergara izatera pasatu ziren

Aurten 75 urte bete dira Angiozar eta Ubera Elgetatik Bergarako auzo izatera pasatu zirela. 1927an izan zen, 600 urte Elgetari lotuta egon eta gero. Banatzea auzotarrek eskatu zuten, besteak beste, Elgetatik Eibarrera egin behar zuten errepide berria zela-eta. Bi udalen artean sinatutako akordioaren arabera ezarri ziren mugak eta ondare publikoaren tasazioak. /2003-10-03

ASTEKO BERRIAK

## Eguzki bidezko energia sortzeko instalazioa Ipintzan

Energia berriztagarriak, eta, batik bat, eguzki energia ezagutzera emateko eta ikasleak horren gainean hezteko eta sentsibilizatzeko helburua du proiektuak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) egindako proiektua da, eta asmoa da 2004rako eguzkiaz baliatuz energia garbia ekoizteko instalazioak ezartzea 170 ikastetxetan. Proiektua iaz jarri zuten abian 50 ikastetxetan, tartean Ipintza institutuan, eta dagoeneko instalazioa guztiz bukatuta eta abian dago. Orain artean, 3.700 kWh-ko sortu dute Ipintzan. /2003-10-24



48 plaka daude institutuko teilatuan.

KULTURA

### Final-laurdenetarako sailkatu zen Ainhoa Agirreazaldegi

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa saioa izan zen Novedades aretoan. Zortzi bertsolarik jardun zuten saioan, horien artean bi bergararrek; Ainhoa Agirreazaldegik eta Enaitz Alustizak. Agirreazaldegik, gainera, final-laurdenetarako txartela lortu zuen. /2003-10-17

ASTEKO BERRIAK

### Isuna jarri zion Udalak Txosna batzordeari

Isuna jarri zion Udalak Txosna batzordeari, baimena ukatu ostean San Martin jaietan txosna jartzeagatik. Txosna batzordeak zentzugabe zeritzon Udalaren jarrerari, batik bat, txosna jartzeko formalki baimenak eskatu eta beti ezezko erantzuna jaso zutelako. /2003-10-24

ASTEKO BERRIAK

### Udala, bikote homosexualek umeak adoptatzearen alde

Mozioa hainbat lesbiana eta gay taldek aurkeztu zuten eta, batik bat, hiru puntu jasotzen zituen. Alderdi guztiek bat egin zuten mozioarekin, eta PPko ordezkaria ez zen bilkuran izan. Bergara Aurreraren kasuan, bilkuran izan zuen mozioaren berri, eta alde azaldu zen. /2003-10-31

TINTORERIA
RENTERI
TINDATEGIA

»» Kalitaterik onena preziorik egokienean
»» Zure konfidantzazko tindategia

ondo pasa gabonak !!

Ikerleku 4 behea
943761968
BERGARA

Zuri beltz Margoak

Barnealde eta kanpoaldeen erreforma
Pintura zerbitzu osoa

Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045

Urte berri on!

# AZAROA



*"Jendea estresatuta bizi da hemen, ezertarako denborarik gabe bezala"*

**NANI TAMAYO**/ KUBATARRA

2003-11-07



*"Euskadiko Karate Txapelketa Bergarara ekartzea gauza handia da"*

**JOSEAN IÑARRA** / ENTRENATZAILEA

2002-11-28

## HILEKO ESALDIA

**"Profesionala izaten saiatu behar du Mikel Goñik; etorkizuna bere eskuetan bakarrik dago"**

**JOKIN ETXANIZ** / ASPEKO KIDEA

2003-11-7

## HILEKO DATUA

**157**

**LAGUNEK AMAITU ZUTEN BEHOBIA-DONOSTIA**

Bergarar askok hartu zuten parte Behobia-Donostiaren 39. edizioan. Horietatik 157k amaitu zuten lasterketa. /2003-11-14




### Urteaga kalea itxita eta 29. zenbakiko bizilagunak etxetik kanpo

Etxetik kanpora geratu ziren berriz ere Urteaga 29ko bost familiak. Eskusarte harrobia dagoen mendian lerradurak gertatu ziren eta, ondorioz, eraikina uzteko erabakia hartu zuen Aldundiak. Baita Bergara eta Antzuola lotzen dituen GI-632 errepidea ixtekoa ere. Foru Aldundiak, ohar baten bidez, bost hilabetez bideak itxita eta etxeak utzik jarraituko zutela jakinarazi zuen. /2003-11-28

EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIARI EZ

↑ Emakumearen aurkako biolentzia ezabatzeko nazioarteko egunak izan zuen oihartzuna herrian. /2003-11-14

AUTOAK SEMINARIOKO PATIOAN APARKATZEA

↓ Zenbaitek autoa Seminarioko parkean uzten zuten; hala, umeei futbolean egiteko traba egiten zieten. /2003-11-14

## AIPAGARRI



**ALFREDO GONZALEZ**
**Konpositorea**

Alfredo Gonzalez Chirlaquek *Añoranza* bere azken lana estreinatu zuen Udal Musika Bandaren kontzertuan. Bere amari eskainita dago *Añoranza*. /2003-11-14



**MIKEL LASKURAIN**
**Aktorea**

Hika Teatroak *Ixa* bere azken lana aurkeztu zuen. Mikel Laskurain aktoreak antzezturiko bakarrizketa da *Ixa*, eta, bere hitzetan, ezohiko lana da. /2003-11-21



**ROBERTO IZAGIRRE**
**Idazlea**

Roberto Izagirrek *Bolo Bolo* Testamentu Gutunen Lehiaketa irabazi zuen Ondarroan. 12 urteko gaztetxo baten gutuna aurkeztu zuen. /2003-11-07


Zorionak eta urte berri on !!

Etxea zuk nahi dozun moduan apaintzeko Zatoz guregana !

izeder

Eskulanak
Ikastaroak
Enkarguak

Harruriaga 2 • 943 76 71 05 • BERGARA

IAM Sarpen eta hari bidezko elektrohigadura
IAMMEK Abiadura handiko mekanizatuak
IAMCUT Ur-zorrotada bidezko mozketak

GRUPO IAM

Zorionak!

Amillaga 10. PK 175 BERGARA
Tel.: 943 76 91 00 Faxa: 943 76 29 49

www.iam.es

Inon ez inor menpekorikan
nor bere buruaren jabe
herri guztiok bat eginikan
ez gabiltza gerorik gabe

Batek goserikan diraueno
ez gara gu asetuko
beste bat inon loturik deino
ez gara libre izango.
*Artze*

**ARALAR**

**Pertsona guztiak**
**Ideia guztiak**
**Proiektu guztiak**

**Su etena, elkarrizketa**
**AUTODETERMINAZIOA**

**Zure laguntza ere beharrezkoa zaigu**
Salbador kalea 1
20690 Elgeta
**gipuzkoa@aralar.net**
**943768306**

www.aralar.net



BERGARA
Kafea-Pentsioa




Logelak


Kafetegia

**EGUNERO GOIZEKO 7:00etatik ZABALIK**
Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 47 23

*Ondo pasau Gabonak!*

BERRIGARA
Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a

Leizeaga 1 • Posta kutxa 185
San Lorenzo industrialdea • BERGARA
Tel.: 943 76 35 09 • Faxa: 943 76 56 76

Markiegi
AUTOAK

FIAT PANDA BERRIA DOAN LOR DEZAKEZU.




Abenduaren 31ra arte, FIAT PANDA bat erosterakoan
zozketa baten parte hartuko duzu*.

*Zozketaren oinarriak notario aurrean gordeta. Zozketaren zenbatekoa Fiat Panda Active autoari dagokio (7.700 euro).
Panda gama: kontsumoak (1/100 km). CE 1999/100 arteztaraua: hiri barruan 7,1etik 7,2ra eta hiritik kanpo 4,8 eta mistoa 5,6tik 5,7ra. $CO_2$ (g/km) emisioa= 133tik 135ra.

FIAT



50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural,
propano eta butano eta
berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

Jai zoriontsuak izan
ditzazuela!

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Larrañaga
Eguren, B. M.

Juan XXIII
Tf. eta Faxa 943 76 11 88
20.570 BERGARA

## LBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### alitate sariak bi rakunderi

rreko bi erakundek sari bana jaso ten IX. Europako Kalitatearen Astean: ergarako Migel Altuna institutuak eta ñatiko ULMA kooperatibak.

003-11-25

EUSKAL HERRIAN

### barretxe Plana npugnatu egin zuten

spainiako Gobernuak Auzitegi onstituzionalaren aurrean inpugnatu uen Ibarretxe Plana. Urriaren 25ean rkeztu zuen Ibarretxek egitasmoa.

003-11-12

MUNDUAN

### 0 lagun hil Turkian, tentatuetan

a nagusitu zen Turkian, Al-Qaedak inbat bonba leherrarazita. 30 lagun ziren eta 200 inguru zauritu zituzten asoaldiotan.

03-11-19

## KULTURA




### Emakumearen egoera irudietan islatzen zuen erakusketa egon zen

Amnesty Internationalen argazki erakusketa egon zen kultur etxen. *Giza eskubideak, emakumeen eskubidea* izenburua zuen, eta emakumeek bizi duten egoera zuen oinarri. Guztira hogei argazki izan ziren ikusgai, eta hainbat herrialdetako emakumeen egoera jasotzen zuten. Amnesty Internationaleko kideek egindakoak ziren eta irudiaren esanahiak zuen garrantzia. /2003-11-14

POLITIKA

### Udalaren jarrera salatzeko ekitaldiak antolatu zituen BAk

*Udala demokratiza daigun* lelopean hainbat mobilizazio antolatu zituen Bergara Aurrera taldeak azaroko azken asteburuan. Herritarren %20,30ak Udalean ordezkaritza gabe jarraitzen zuela salatzeko idatzia aurkeztu, firmak bildu eta elkarretaratzean egin zituzten. /2003-11-28

INDUSTRIA

### Lazpiur enpresak zilarrezko Q-a jaso zuen kalitate alorrean

European Foundation for Quality Management (EFQM) erakundeak zilarrezko Q-a eman zion Lazpiur enpresari. Ziurtagiri horrek kalitate alorrean egindako lana nabarmentzen du. Lazpiur 1964an sortu zen eta egun 90 langile ditu. Automobilgintzan egiten du lan. /2003-11-21

LTURA

### rretiratuen egoitzari uruzko liburua rgitaratu zuten

ergarako erretiratuen egoitzaen historia liburu batean jaso en Xabier Ibartzabal mediku nostiarrak. *Evolución del hogar el jubilado en el contexto social e Bergara. 1972-2002* liburuaren 500 ale argitaratu zituzten, eta ost euroren truke jarri zituzten algai. /2003-11-07

ONDAREA

### Monumentu izendatu zuen Jaurlaritzak Eduegi baserria

Kultura Sailak San Kristobalgo Eduegi baserria monumentu izendatu zuen. Izendapenarekin babes berezia jasotzen dute baserriak eta haren inguruak. Eduegi Debagoieneko XVI. mendeko baserri-dolareen bilakaera eta egokitzapenaren adibide bikaina da, adituen esanetan. /2003-11-14

PRESOAK

## Luis Mari Azkargorta 'Kanto', berriro kartzelara

Madrilgo Audientzia Nazionalak Luis Mari Azkargorta *Kanto* kartzelaratzeko agindua eman zuen. Joan den urteko urtarrilaren 7an utzi zuten aske, baldintzapeko askatasunean. Baina berriz kartzelara joateko agindua jaso zuen azaroan, hirugarren gradua ezeztatu egin baitzioten. Azaroaren 27an sartu zuten Luis Mari Azkargorta Martuteneko kartzelan. Audientzia Nazionalak 12:00etatik 13:00ak arteko tartea eman zion Donostiako kartzelan aurkezteko. 15 urte kartzelan egon eta gero, orain beste hiru urte pasatxo egon beharko du bertan, 2007a arte. /2003-11-28

ONDAREA

### Epaitegia berritzeko proiektua aurkeztu zuen Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak epaitegia kanpotik zaharberritzeko eta sarrera ezinduendako egokitzeko proiektua egin zuen. Batik bat, eraikina garbitu egingo dute, eta estalkia berritu. Udalak begi onez ikusi zuen Jaurlaritzaren asmoa. /2003-11-14

Matricería Agorrosin

Agorrosin, S.L.
DOITASUNEZKO MOLDEEN ETA METAL GOGORREZKO TRESNEN FABRIKAZIOA
San Lorenzo industri poligonoa - Haitz Iturri 6, 279 posta kutxa
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 29 63
Faxa: 943 76 72 84
Posta elektronikoa: Agorrosin@agorrosin.com
ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!




TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.
SEAT Audi
Audi A3 berria. Zibilizatzeke.
Urteaga 37 BERGARA • Tel.: 943 76 12 50
Mundu zibilizatu honetan, jendeak emozio biziak sumatzen ditu faltan.
Itxura sendoagoko automobil baten bila zebilen, 250 ZPko duen automobila.
Ondorengo aurrerapenekin: DSG martxa-aldagailua eta Quattro trakzio integrala.
Hori guztia gura dutenendako berri onak dauzkagu.
Audi A3 berria aske dabil.

# ABENDUA



*"Gaur egun nekazariok dugun arazorik larriena lur falta da"*

**AGURTZANE DIAZ** / NEKAZARIA

2003-12-05



*"Ez dugu derrigorrez herri-herriko gaietara mugatu beharrik"*

**ESTEPAN PLAZAOLA**/GOIENAKO PRES.

2003-12-05

## HILEKO ESALDIA

**"Lehenbailehen egin nahi ditugu Agorrosingo aldagelak, kirol gune berriaren proiektuarekin hasteko"**

**VALENTIN EGIDAZU** / ZINEGOTZIA

2003-12-05

## HILEKO DATUA

# 766

**12 ETA 17 URTE ARTEKO GAZTE KOPURUA**

Herrian 12 eta 17 urte arteko 766 gazte eta nerabe daude. Populazioaren %5,11, hain justu ere. /2003-12-12



### Gazte eta nerabeen errealitatea ezagutzeko azterketa egin zuten

12 eta 17 urte bitarteko gazte eta nerabeen errealitatea ezagutzeko azterketa bukatu zuen Udalak abenduan. Urte bete inguru eman zuten azterketa egiten. Gazte horien beharrak zein diren ezagutu nahi izan dituzte azterketa horrekin, gerora, behar horiek asetzeko. Horretarako, programa berezi bat zehaztuko dute; kale hezitzaileen bidez, ingurune irekian gauzatuko dena. /2003-12-12

**PREFERENTE MAILAKO FUTBOL TALDEA**

Azaroko bost partiduetan bi puntu bakarrik lortu zituen arren, Aloñari 1-0 irabazi zion abenduaren 6an. /2003-12-06

**ZABOR EDUKIONTZIAK ERABILTZEKO DIRA**

Denbora da zabor edukiontziak daudela; urte bukaeran oraindik ere ontzitik kanpo lagatzen da zaborra. /2003-12-12

## AIPAGARRI



**JESUS MARI UGALDE**
**Zientzialaria**

Ikerkuntzako Euskadi Saria jaso zuen. Fisika, kimika eta materialen zientzia alorretan jorratu du ikerketa lana. Hamarren artean hautatu zuten. /2003-12-01



**AGURTZANE CRESPO**
**Ikaslea**

Kutxak Gipuzkoako ikasle onenei ematen dien sarietako bat jaso zuen. Zientziak-Enpresa Fakultatean burutu ditu ikasketak, Eskoriatzan. /2003-12-02



**ENAITZ ALUSTIZA**
**Bertsolaria**

Gasteizen jokatutako Bagare sariketako finalera iritsi zen. 20 bertsolarik hartu zuten parte eta sei sailkatu ziren finalerako. Ez zuen saria eraman. /2003-12-04





ZARAITZU
Artisau-produktuak
ZABALIK Fraiskozuri plazako 3an. Telefonoa: 943 76 46 64
Zorionak herritar guztioi!

Garaje Murillo
Auto konponketak orokorrean
Zorionak eta urte berri on!
Leizeaga, 4 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 13 84
EUROTALLER SERVICIO

## ALBISTE IZAN ZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Euskararen aldeko lanagatik, saria Elayri

Antzuolako Elay enpresak Anton Abbadia saria irabazi zuen, euskararen erabilera sustatzeko euren planagatik. 1991n jarri zuen plana indarrean Elayk.

2003-12-19

▸ EUSKAL HERRIAN

### 'Susper' ETAko buruzagia, atxilotuta

Ibon Fernandez Iradi *Susper* ETAko burua atxilotu zuen Frantziako poliziak, ETAko beste bi kiderekin, ihes egin eta urtebetera.

2003-12-05

▸ MUNDUAN

### Putin irabazle Dumako hauteskundeetan

Vladimir Putin presidenteak irabazi zituen Errusiako Legebiltzarrerako hauteskundeak, botoen %37rekin. Komunistak bigarren geratu ziren.

2003-12-07

## KIROLA




### Samaniego-Gutierrez, finalera

Edu Samaniego eta Igor Gutierrez pilotariak Gipuzkoako kluben arteko txapelketako finala jokatzeko sailkatu ziren, abenduaren 12an, Bergaran, Landa-Erroizenea Añorgako bikoteari 22-20 irabazi ondoren. Finala abenduaren 19an jokatzekoa zen, Hernaniko pilotalekuan. Gutierrezek eta Samaniegok Erroizenea-Argote Añorgako bikoteari aurre egin behar zioten finalean. Ligaxkan jokatutako hiru partiduetatik bakarra galdu du bikote bergararrak. Gutierrezek eta Samaniegok txapelketa bikaina egin badute ere, ezin ahaztu gaixorik dagoen Ander Muguruzak egindako lana. Haren lekua bete du Edu Samaniegok azken partiduetan.

KULTURA

### Musika Eskolako ikasle eta irakasleek emanaldia egin zuten

Gabonen atarian, emanaldia egin zuten Musikako ikasle eta irakasleek. 200etik gora ikaslek hartu zuten parte emanaldian, zazpi taldetan banatuta. Orain arte emanaldi hori ikasleendako bakarrik izan den arren, irakasleek ere emanaldia egin zuten, estreinakoz. /2003-12-09

KULTURA

### Gure Ametsak Benito Lertxundi kantaria omendu zuen

Abenduaren 18an omendu zuen San Antonioko Gure Ametsa elkarteak Benito Lertxundi kantari oriotarra. Euskal kulturaren alde egindako lana goraipatu nahi izan zuten. Lertxundirekin elkarrizketa-hitzaldia eta ondoren afaria izan ziren Gure Ametsa elkartean. /2003-12-18

ERREPIDEAK

### Eibar-Gasteiz autopistaren lehen zatia, inauguratuta

Joan zen zapatuan, hilaren 20an, A-1 autopistako Maltzaga eta Bergara arteko zatia inauguratu zuten. Maltzaga eta Bergara iparraldea bitartean 7,2 kilometroko tartea dago, horietatik 4,5 tunelen azpian. Oraingoz, Gallastegiko tunela (2,4 km), EAEko luzeena da. /2002-12-19

KIROLA

### Jon Gonzalez eta Rakel Blanco brontzezko saria

Bergara Shotokan taldeko Rakel Blancok eta Jon Gonzalezek brontzezko domina lortu zuten Bergaran jokatutako Euskadiko Karate Txapelketan, kadete mailan. Markel Larrañaga, Unai Zabarte eta Miren Laskurain ere ondo aritu ziren baina ezin izan zuten saririk lortu. /2003-12-05



**Shotokan taldekoek emaitza bikainak lortu zituzten Euskadiko txapelketan.**

KULTURA

### Erakusleiho Lehiaketako sariak banatu zituzten

Udaleko ordezkariek Gabonetako Erakusleiho Lehiaketako sariak banatu zituzten, abenduaren 23an. Honako denda hauek jaso zituzten sariak: Ninika, Baster eta Kilika, hain justu ere. Irabazle guztiek 250 euro eta oroigarri bana jaso zituzten. /2003-12-18

NATURHOUSE
Nutrizioa eta Dietetika

• Dieta pertsonalizatuak
• Kontsultak doan

*Leire Perez Sampedro*
Biologia Zientzietan lizentziaduna eta
Dietetika eta Nutrizioan espezialista.




Simon Arrieta 3 • Tel.: 943 76 48 56 • BERGARA

*Urte berri on !*



LASA
*Jatetxea*

Koldo Lasak zorionik beroenak opa dizkizue bergarar guztioi !

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

BERRIGARA
Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a

# URTE BERRIRAKO EGITASMOAK

*2004 urtearekin batera, hainbat proiektuk aurrera egingo dute. Esate baterako, Eibar-Gasteiz autopistako lehen zatia inauguratu zuten abenduaren 20an eta datorren urtean Bergara iparraldea eta Bergara hegoaldea arteko zatia zabalduko dute. Agorrosingo kirol gune berria eskuartean dauka udalak aspalditik, baina proiektua geldirik dago. 2004an hasiko dira lanak. Arostegi etxean, berriz, erakusketa areto berria jarriko dute. Eta ikusteko dago udalak zer egiten duen gazte eta nerabeen gainean egindako azterketarekin, beraien beharrak zeintzuk diren jaso eta gero. Proiektu horien gaineko hainbat pista ematen dizuegu.*




## Maltzaga eta Bergara arteko zatia zabalik, A-1 autopistak aurrera egingo du 2004an

A-1 autopistako Maltzaga eta Bergara arteko zatia inauguratu zuten abenduaren 20an. Maltzaga eta Bergara iparraldea bitartean 7,2 kilometroko tartea dago, horietatik 4,5 tunelen azpian. Urtarrilean Larreategiko zubi bidean gertatutako istripuaren ondorioz, Larreategin bi noranzkoetan zubi bakarra izango da martxan oraingoz. Bigarren zubi bidea 2004ko azaroráko zabalik izango da ziurrenik. Zabaldu berri duten zatiaren ordainsariari dagokionez, 0,70 eurokoa izango da ibilgailu arinendako: lehen mailako ibilgailu pisutsuendako 1,25 euro eta bigarren mailakoendako 1,40 euro.
Maltzaga eta Bergara artean dagoen Gallastegiko tunela (2,4 km), EAEko luzeena da. Hala ere, Arlabanen egingo dutenak marka hori hautsiko du, 3,4 km izango ditu-eta.
Bestalde, Bergara iparraldea eta Bergara hegoaldea arteko zatia (4,2 km), 2004ko erdialdean zabaltzea espero dute. Tarte horretan Zaldumendiko lotunearekin eta ekialdeko saihesbidearekin bat egingo du autopistak. Bergara hegoaldea eta Epele artekoa, berriz, 2005ean zabalduko dute. /E.M.




ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

75 urte zuekin!

Zorionak eta
urte berri on
herritar guztioi!

Nerea
Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Ondo pasau
Gabonak !!



Simon Arrieta plaza 1 • Tel.: 943 76 19 52



## Gazteen beharrei erantzuteko programa

12 eta 17 urte arteko gazte eta nerabeen beharrak ezagutzeko azterketa bat egin du aurten Udalak. Beharrok ezagutzea eta horiei erantzuteko programa hezitzaile bat bultzatzea du helburu, ingurune irekian. Dagoeneko, azterketa bukatu dute eta Udalak badaki zein diren gazteen beharrak. Orain, ikusteko dago 2004an horiei erantzuteko programa hezitzailea abian jarriko duten. Ongizate Zerbitzuak datorren urteko aurrekontuetan jaso nahi du, behintzat. /M.B.



## Agorrosingo kirolgune berriko lanak, hasteko zain

Kirolgune berriko proiektua geldirik dago. Maiatzean hastekoak ziren lanak, baina aurten ez da ezertxo ere egin. Udalak lehenbailehen ekin nahi dio proiektuko lehen faseari. Agorrosinen aldagela berriak egiten direnean hasiko dira kirolguneko lanak. Proiektuaren arabera, lehen fasean, besteak beste, 21x25 m eta 20x5,5 m-ko bi igeritoki, gimnasioa, squashe-rako gelak, haurtzaindegia, aldagelak eta kafetegi-jatetxea egingo dira Agorrosinen. /E.M.



## Arostegi etxean erakusketa aretoa zabalduko dute udaberri aldera

Arostegi etxean erakusketa aretoa jarriko dute. Arostegiko behe solairuak 180 metro koadro inguru ditu eta horietatik 155 erakusketa aretoa jartzeko erabiliko dira. Proiektua Iñaki Berasategi, Elisabeth Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek egindakoa da. Arostegiko sarrerako ateak (XVI. mendekoa) duen balio historiko-artistikoa kontuan izanda, erakusketa aretoan sartuko dute, erakusketarako elementu egonkor gisa.

Etxebizitzen, etxabeheen eta garajeen eraikuntza
ORTUIBAR SA
PROMOZIOAK
Ibargarai 18 BERGARA 943 76 11 18
Zorionak eta urte berri on!

ETXEBERRIA
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK
Erosi zure oparia Etxeberrian eta 1.500 eurotako saria irabazi
Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tel. 943 76 23 94 - 76 12 65

ERRETRATUZAHARRA



# Aranzadi ikastolako ikasleak, 1980. urtean

Gabon egunean, ohikoa denez, herriko ikasleak eta beste hainbat talde kantuan egitera atera ziren kalera. Zalantzarik ez, goizean goizetik giro berezia izaten da abenduaren 24an.

Goiko argazkian Aranzadi ikastolako talde bat ikus dezakezue. 1980an aterakoa da, argazkian azaltzen diren ikasleek hiru urte zituztenean, hain zuzen ere.

Argazkian, ezkerretik eskumara, zutik: Edorta Bilbao, Mari Karmen Gutierrez irakaslea, Igor Iñurrategi, Gorka Aranzabal, Jon Belastegi eta Miren Gurutze Lete.

Jarrita: Alfonso Romera, Itziar Iturbe, Larraitz Ibarguren, Gorka Ruiz de Egino, Joseba Duran, Josu Garitano eta Joana Gallastegi.

Aurrean: Ane Mujika, Xabier Aizpurua, Mikel Vicente, Nekane Etxabe, Amaia Moreno, Elena Gonzalez eta Markel Egaña.

**Argazkia**: Mari Karmen Gutierrez

YON BILBAO S.M.

Urte berri on!

• ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
• ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURTASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK

35 URTEKO ESPERIENTZIA LUZEA

Tailerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tf eta faxa: 943 76 28 05 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32

Zumelaga
JATETXEA

Jai zoriontsuak izan ditzazuela denok!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

60 urte zuen zerbitzura!


Urte berri on!
BASTIDA SUKALDEAK
SUKALDEKO ALTZARIAK
xey
BASTIDA SUKALDEAK
Ibargarai 36-38 BERGARA
Tel./faxa: 943 76 70 58

Deutsche Post World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



# Eguberri on!

**Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.**
DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobeagoa den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

*DHL Express Bergara*
*San Juan Erreka 33*
*20570 - Bergara*
*Tel.: 943 763 642*
*Faxa: 943 765 425*

MUNDUA MUGITZEN DUGU DHL

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a / 184. zenbakia

# 2003 urteari begiratua

## ANTZUOLA



Era guztietako margolanak eta fatxaden garbiketak

Zorionak eta urte berri on!

943 76 64 07 616 277 999 Antzuola

# URTARRILA



*"Hondartzara iritsi eta inpresioa oso txarra izan zen: haitzak beltz-beltz eginda, hondartza bera ere bai..."*

**MIKEL BARGIELA**
GALIZIAN BOLUNTARIO IBILI ZEN
2003-01-17

ELKARTASUNA

## Sahararrei laguntzeko janaria eta dirua batzen hasi ziren

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkarteak abian jarritako kanpainarekin bat egin zuten Antzuolako Udalak eta Anelkarrek.

Janaria batzen hasi ziren herrian. Batez ere, lekaleak, azukrea, atun latak, olioa, zerealak, arroza eta pasta batu nahi izan zituzten. Batutako janari guztia Tindouferaino bidaltzeak sortzen zituen gastuei aurre egiteko, berriz, dirua ere behar izan zuten. Sahararrei diruz laguntzeko Anelkarren kontuan sartu zuten dirua.

Horrez gain, Mohamed Salem Embarek Fronte Polisarioko kidea izan zen herrian. Hitzaldia egin zuen, eta saharar errefuxiatuen gaur egungo egoeraren berri eman zuen./2003-01-24

OSPAKIZUNAK

### Independentzia Eguna ospatu zuten hilaren 11n antzuolarrek

Antzuolaren independentziaren 332. urteurrena ospatu genuen urtarrilaren 11n. Azkeneko urteotan ezinbesteko hitzordu bihurtu da egun hori herrian, eta espero bezala, jende ugarik parte hartu zuen ospakizunetan.

Ohi bezala, Udal Pilotalekuan egin zituzten bazkaria eta bazkalosteko ekitaldiak. /2003-01-10



Udal Pilotalekuan egin zuten bazkaria.

# OTSAILA



*"Dei egin nahi nieke erretiratuei, elkartera arrima daitezen"*

**JOSE MARI UGALDE**
ERRETIRATUEN ELKARTEKO PRES.
2003-02-07



*"Hiru urte eman nituen gerran, Espainia osoan hara eta hona"*

**KRUZ AZKARATE**
ERRETIRATUA
2003-02-14

HEZKUNTZA

## Haur Hezkuntzako ziklo osoa eskatu zioten Jaurlaritzari

Eusko Jaurlaritzak 0 eta 3 urte bitartekoen Haur Hezkuntza arautzen duen dekretua indarrean jarri zuen. Hori zela eta, Antzuolako Herri Ikastetxeak zera eskatu zion Jaurlaritzari: Haur Hezkuntzako ziklo osoa jaso eta ziurta zezala Antzuolan. Horixe jakinarazi zion Herri Ikastetxeko zuzendariak Udalari osoko bilkuran, eta, jakinarazpen horrekin batera, bere laguntza ere eskatu zion Udalari.

Osoko bilkura horretan, udalbatzak aho batez erabaki zuen Herri Ikastetxeari laguntza ematea Hezkuntza Saileko ordezkarien aurrean egin behar diren kudeaketa lanetan.

Jaurlaritzak emango duen hurrengo urratsa izango da Haur Hezkuntzaren gaineko mapa egitea. /2003-02-21

POLITIKA

### Gertu Gae herri plataforma aurkeztu zuten herrian

Jende mordoa elkartu zen plazan, Gertu Gae izena jarri dioten herri plataformaren aurkezpenean. Ehunetik gora lagun batu ziren herriko talde berri horren nondik norakoak jakiteko.

Herriko Plazan egindako aurkezpenaren aurretik kalejira egin zuten plataformako kideek eta herritarrek. /2003-02-28

ANTZUOLA HERRIA IKERKETA BEKA

### Herriko ohitura zaharren gaineko liburua

Iñigo Ramirez de Okariz historiagileak *Bizitza pasarteak Antzuolan* izeneko liburua aurkeztu zuen. Aurkezpenarekin lotuta, baserritarren antzinako jantziak izan ziren ikusgai.

XX. mendeko ohiturak aztertzen ditu Iñigo Ramirez de Okarizek liburu horretan, 1900etik 1960ra artekoak. /2003-02-21

ERREPIDEAK

### Behin-behineko irtenbidea Uzarragako errepideari

Bi tokitan apurtu zen Uzarragako bidea, Azkarate baserriaren parean: Azkaraterako bidegurutzea baino beheraxeago eta bidegurutzea baino goraxeago.

Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek egoera horri behin-behineko irtenbidea eman zioten. /2003-02-14

KIROLA

### Herriko gimnastak, gazteen Gipuzkoako Txapelketan

Hiru antzuolarrek parte hartu zuten gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Txapelketan: Maialen Toledok, Iraitz Gastiainek eta Uxue Arregik.

Hilaren 1ean jokatu zuten lehenengo sailkapen saioa. Maialen lehenengo izan zen, Uxue hirugarren eta Iraitz, berriz, bederatzigarren. /2003-02-14

**Ondo pasau Gabonak!**



Gabilondo-Arregi
harategia
ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA
Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

ELAY Taldea
Zorionak eta urte berri on!

Ainhoa
drogeria
ONDO IBILI GABONETAN!
Kalebarren 13, ANTZUOLA

Zorionak denoi!
Ana Etxeberria
Kirol masajista • Osteopatia • Esku terapeuta
Linfodrenagista • Kiropraxia
Errekalde 6 behea. Tel: 943 76 60 13. ANTZUOLA

# MARTXOA



*"Fikzioaren bitartez, ipuinen bitartez, umeak errealitatea uler dezake"*

**JUAN CARLOS ALONSO**
PSIKOLOGOA
2003-03-07



*"Batu ditzagun indarrak, egoera aldatzen hasteko sasoian gaude-eta"*

**AINHOA UGARTEBURU**
SOZIOLOGOA
2003-03-21

GAZTETXEA

## Udalak oinetako denda egon zen lokala eskaini zion AGAri

Maristen eraikina itxi zutenetik, gaztetxe barik egon ziren gazteak. Udaleko arduradunek, berriz, gaztetxea jartzeko lokal egoki baten bila jardun zuten. Mireia Unamuno alkateak azaldu zuenez, gaztetxea jartzeko moduko lokal egoki bat topatzea ez da lan erraza. Azkenean, gaztetxea jartzeko moduko lokal bat topatu zuten, oinetako denda egon zena, Kalebarrenean. Aukera hori esku artean zutela, Surpe taberna itxi behar zutela jakin zuten, eta ugazabak gertu egongo liratekeela errentan emateko.

Gazte Asanbladako kideekin hartu-emanetan jardun zuten Udaleko arduradunek. Bi aldeek egindako batzarrean gazteek adierazi zieten nahiago zutela Kalebarrengo lokala. Zera esan zuten: "Ez dugu nahi lehengoan erortzea, gaztetxea taberna hutsa baino gehiago izatea nahi dugu." /2003-03-07



Zapata denda egon zen lokala aukeratu zuten gaztetxea jartzeko.

HIRIGINTZA

### Erreka ikusten egon ziren Jaurlaritzakoak

Eusko Jaurlaritzako adituek, errekaren egoeraren berri izan ondoren, zera erabaki zuten: errekak lehengo bidetik jarraituko duela, plaza azpitik, estalita. Baina, udaletxe atzean gainezkabidea egingo dute, erreka hazita datorrenean ura handik joan dadin. /2003-03-14

HERRI IKASTETXEA

### Liburutegia jartzeko batzordea sortu zuten

Herri Ikastetxeko arduradunek eta gurasoek batzarra egin zuten, liburutegia egokitzeko batzordea osatzeko. Eskolako arduradunen helburua zen azkeneko solairuan, garai batean eskolako atezainaren etxea egondako tokian, liburutegia egokitzea. /2003-03-14

# APIRILA



*"Zinegotzion artean ondo konpondu gara; ez dugu politikarik egin, udal kudeaketan oinarritu gara"*

**MIREIA UNAMUNO**
ANTZUOLAKO ALKATEA
2003-04-11

HIRIGINTZA

## Igerilekuak egiteko hainbat oztopo izan zituzten

Herriko gazteek eta gurasoek, batez ere, aspalditik eskatu izan diote Udalari herrian igerilekuak egitea. Aurreko agintaldian, azkenean, gaia aztertzen hasi zen Udala. Proiektua egiten hasi aurretik, Antzuolaren tankerako hainbat herrirekin harremanetan jarri ziren Udaleko arduradunak. Batekin eta bestearekin egon eta gaia ondo aztertu ondoren, hainbat irizpide zehaztu zituen Antzuolako Udalak.

Udalaren asmoa zen igerilekuak Sagasti auzoan egitea. Gune hori errepidearen ondoan dagoenez, Diputazioko Errepide Sailari baimena eskatu zion Udalak. Gune horretan, gainera, lurrak mugitzeko arriskua duenez, Udalak espero zuen hainbat neurri tekniko hartzeko aginduko ziola Diputazioak. Baina ez bata eta ez bestea. Gauza bakarra esan zuen Diputazioak: hor ez zegoela igerilekuak egiterik. /2003-04-11



Udalaren asmoa zen igerilekuak Sagasti auzoko zelaian egitea.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI
taberna jatetxea
Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA



Juan Cruz
ARGAZKIAK
Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak
BITXITEGIA
Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

EAJ
PNV
Antzuolako EAJk
Gabon egun eta Urteberri egun guztiz on eta zoriontsuak opa dizkizue!

martin
okindegia
Langela:Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA
Urte berri on antzuolar guztioi!

# MAIATZA



*"Itxurakeriak eta hitz hutsak alde batera utzita, ekintzetara pasatzeko garaia da oraingo hau"*
**ENEKO ITURBE**
IKASLEA
2003-05-23

HAUTESKUNDEAK

## Botoen ia erdiak lortuta, Jose Angel Zabalo alkate

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan botoen ia erdiak lortu zituen EAJ-EAk, eta ondorioz, Jose Angel Zabalo dugu alkate berria datozen lau urteotarako. Udalbatza osatzen duten bederatzi zinegotzietatik zortzi lortu zituen EAJ-EAk eta zinegotzi bat PSE-EEk.

Gertu Gae plataformari parte hartzen laga izan baliote, hiru zinegotzi lortuko zituzkeen azken udal hauteskundeetan.

Udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetako boto kopuruak alderatuz gero, aldaketa handi samarrak gertatu ziren: bai EAJ-EAk eta bai AuBk botoak galdu zituzten. Kontuak eginez gero, badirudi bi alderdi horiek galdutako botoak Aralar alderdiak lortu zituela. /2003-05-30

HIRIGINTZA

### Artolazabaldarren etxea bota zuten maiatzean

Simon Artolazabalen Etxea bezala ezagutzen genuena eraitsi zuten. Aspalditik zegoen etxe hura botatzeko asmoa; izan ere, etxebizitzak egiteko asmoa zegoen toki horretan. Sei etxebizitza, hain zuzen ere, egiten ari dira leku horretan, eta horrela, Aiherra inguruneko lanak amaitutzat emango dituzte. /2003-05-16



Etxe berriak egiten ari dira orain.

# EKAINA



*"Garrantzitsuena izango da banakakoa ondo prestatzea lehen mailan"*
**ARITZ BERRAONDO**
PILOTARIA
2003-06-06



*"Beti telebistari begira eta beti kritikatzen aritzen gara"*
**ALAITZ JAUREGI**
LANGILEA
2003-06-13

MANKOMUNITATEA

## Enpresa Ekintzetako Zentroa zabaldu zuten Olaranen

2002ko otsailaren 4an inauguratu zuten Olaran etxea. Beheko solairua Antzuolako Udalarena da, eta hainbat erabilpen ematen dizkio solairu horri. Lehenengo solairuan KZGunea dago. Bigarren eta hirugarren solairuetan, berriz, Debagoieneko Mankomunitatearen Enpresa Ekintzetako Zentroa zabaldu zuten.

Zentro horren helburua da iniziatiba edo ekimen berriak bultzatzea; hau da, hastera doanari aukera ematea. Horretarako, lokalak lagatzen dizkie Mankomunitateak ekintzaile berriei, merkatuko prezioekin alderatuta, oso merke. Hainbat baldintza bete behar dituzte ekintzaileek lokal horiek lortzeko, eta hainbat irizpideren arabera erabakitzen du Mankomunitateak bulegoak eman edo ez. Hamaika bulego daude horretarako. /2003-06-06



Mireia Alberdi bergararrak dietetika bulegoa jarri zuen bertan.

UDALA

### EAJ-EAko bost zinegotzik bakarrik hartu zuten kargua

Gainerako herri guztietan moduan, Antzuolan ere ekainaren 13an osatu zuten udalbatza berria. Udalbatza osatzeko osoko bilkura berezia egin zuten Antzuolako udaletxean. EAJ-EAko hiru kargu hautatuk ez zuten kargua hartu, eta Gertu Gae plataformako hiru kidek hartu zuten parte bilkuran. /2003-06-20

HIRIGINTZA

### Maristen eraikina botatzeko lanekin hasi ziren

Ekainaren azkenengo astean hasi ziren Maristen eraikina botatzen. Egoera kaskarrean zegoelako hartu zuten eraikina botatzeko erabakia.

Gizarte etxe berria eraikiko dute bertan. Hainbat jardueratarako prestatuko dute gizarte etxea: zinema, gaztetxea, erretiratuendako egoitza... /2003-06-27

Zorionak eta urte berri on herritar guztioi!

Antzuolako udala
www.antzuola.com

SUKALDEKO HALTZARIAK
Harizki
• Sukalderako eta bainurako altzariak
• Altzari rustikoetan espazializatuak
MUEBLES IGEA
Zurrategi plaza 4 behea • Tel./Faxa: 943 78 71 80

# UZTAILA



*"Berrogeita zazpi lagun guztiz baztertuak izan dira gure herrian"*
**PATXI OLABARRIA**
LANGILEA
2003-07-11



*"Kansenia herrira ura ekartzeko tutuak jartzera joan ginen Kongora"*
**BITTOR ARBULU**
KONGON LAGUNTZAILE
2003-07-18

GAZTETXEA

## Kalebarrengo lokala laga zuten Gazte Asanbladakoek

Aste Santu aurretik eman zion Udalak Gazte Asanbladari lokala Kalebarrenean. Ordutik uztailera hainbat egokitzapen lan egin zituzten lokal horretan, gaztetxea jartzeko. Euren nahia zen lehenbailehen lan horiekin bukatu, eta herriko jaietarako gaztetxea zabaltzea.

Lokala lagatzeko arrazoi nagusia izan zen Udalarekin ez zutela adostasunik egin. Aurreko agintaldiko Udalarekin adostasuna lortuta zuten gazteek: "Ez zegoen idatzizko hitzarmenik, baina ahozko adostasunera iritsita geunden", adierazi zuten. Orain, baina, gauzak aldatu egin ei dira; halaxe azaldu ziguten: "Azken baten, arazoa da Udalak ez duela gaztetxerik nahi, gazteleku edo gazte lokal bat baizik.

AGAkoen esanetan, autokudeaketan zuten desadostasuna; gazteek eurek nahi zuten gaztetxea kudeatu. /2003-07-04

UDALA

## Hainbat eztabaida sortu ziren osoko bilkuran

Ekainaren 26ko osoko bilkuran hainbat eztabaida sortu ziren Gertu Gae plataformako kideen eta alkate berriaren artean. Plataformako kideok Udalean nolako parte-hartzea izan behar zuten gaiaren gainean sortu ziren, hain zuzen ere, eztabaidak. /2003-07-04

ELKARTASUNA

## Gari-jotzea antolatu zuen Anelkarrek, dirua batzeko

Herriko jaien inguruan urtero egiten duen moduan, aurtengoan ere elkartasun festa antolatu zuen Antzuolako Elkartasun Taldeak. Aurtengoa, baina, festa benetan berezia izan zen; izan ere, dirua lortzeaz gain, garai bateko ohiturak ezagutzera eman nahi izan zituzten. Horretarako, gari-jotzea egin zuten. /2003-07-11

KIROLAK

## Julen Garitano antzuolarra, lehen euskalduna Austrian

Austriako Karnten herrian jokatutako Ironman lasterketan lan bikaina egin zuten hiru antzuolarrek: Julen Garitano 89. postuan sailkatu zen, 9 ordu, 20 minutu eta 16 segundoko denborarekin; Karlos Baleztena 160. sailkatu zen; eta Imanol Pildain, azkenik, 765. postuan iritsi zen helmugara. /2003-07-11

EUSKARA

## Idolaz elkarteak aurrera jarraitzea erabaki zuen

Batzar berezirako deialdia egin zuen uztailean Idolaz euskara elkarteak. Azkeneko urteotan aurrera egiteko izan dituzten arazoak ikusita, etorkizunean zer egin erabakitzeko egin zuten batzar berezi hori. Azkenean erabaki zuten lanean aurrera jarraitzea. /2003-07-18

# ABUZTUA



*"Zaletasun honek arrisku puntu bat badauka, baina hori ere oso polita eta erakargarria da"*
**OIHAN GEZALAGA**
GRAFITI EGILEA
2003-08-29

HIRIGINTZA

## Buztinzuri kalea itxi zuten urbanizazio lanak egiteko

Abuztuaren 25ean itxi zuten Buztinzuri kalea, urbanizazio lanekin hasteko. Udaleko arduradunek adierazi zuten hiru hilabetez egongo zela zirkulazioari moztuta.

Buztinzuri kalean egiten ari ziren etxebizitzak aurrera zihoazen eta urbanizazio lanak egiten hasi ziren; horregatik, hain zuzen ere, itxi zuten kalea.

Alde batetik, lurzoru berria jarriko dute kale hartan eta eskolatik Sagastirako bidean; bestalde, egunkarien saltokiaren aurreko aldean parke bat eta Ondarrera igarotzeko oinezkoendako zubia egingo dituzte. Azkenik, Txorikua etxea eraitsi egingo dute. Etxe hura botata, autoendako errepide egingo dute, Sagasti eta Kalegoi lotzeko. /2003-08-29

ERREPIDEAK

## Istripu larria gertatu zen saihesbidean abuztuaren 30ean

Arratsaldeko 17:30 aldera gertatu zen istripua. Hiru autok jo zuten elkar. Bi lagun hil ziren istripuan, 12 eta 17 urteko bi gazte, hain zuzen, eta beste zazpi lagun zauritu ziren, horietako bi larri. Guztiak kanpokoak ziren.

Istripuaren ondorioz, ertzainek itxi egin zuten errepidea eta auto ilarak sortu ziren. /2003-08-29



**Bi lagun hil ziren istripuan.**



MATZ-ERREKA
Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia
•
Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ibarreta z/g 20577
Antzuola
Tel. + 34 943 78 60 09
Faxa + 34 943 78 70 34
INTERNET:
http://www.matz-erreka.com
http://matz-erreka.mcc.es

ERREKA®
Ate eta pertsianak zabaltzeko automatismoen fabrikazioa

# IRAILA



*"Hilabete osoa egin dut Lazkaoko barnetegian, eta asko ikasi dut. Zailena ikasitakoa praktikan jartzea da"*
**ANTONIO JURADO**
EUSKARA IKASLEA
2003-09-12

ERREPIDEAK

## Beasain-Durango autobiaren maketa ikusgai jarri zuten

Beasain-Durango autobiaren Zumarraga eta Bergara arteko zatia nondik pasatuko den eta zelakoa izango zen; horixe ikusi zitekeen udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Foru Aldundiko arduradunek espero dute 2007. urtean hastea errepide horretako lanekin; erakusketa jartzeko arrazoia izan zen alegazioak aurkezteko epea irailean amaitzen zela. Gauzak horrela, heritarrek proiektua zehaztasun osoz ezagutzeko eta alegazioak aurkezteko aukera izan zuten.

Hasiera batean noranzko bakoitzerako errei bana egitea zehaztu zuten, baina gaur egungo proiektuan noranzko bakoitzerako bina errei egitea jasotzen da. /2003-09-12

FUTBOLA

### Bi futbol talde berri osatu zituzten herrian

Bi futbol talde berri osatu zituzten 2003-2004 denboraldirako; erregional eta gazte mailako taldeez gain, nesken taldea eta kadeteena osatu zituen Antzuolako Kirol Elkarteak.

Irailaren hasieran ekin zieten entrenamenduei, eta iraileko hirugarren hastean hasi zuten denboraldia. /2003-09-05

HIRIGINTZA

### Egurrabei pareko lanak hasi zituzten iraila hasieran

Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek azaldu zigutenez, eurek *sarrerako atea* deitzen diotena egiten hasi ziren hantxe. Lanon helburua zen Deskargatik behera datozen ibilgailuen abiadura murriztea. Lan horiez gain, Beheko auzoko bidegurutzean ere egokitzapen lanak egingo dituzte. /2003-09-19

# URRIA



*"Haurrak beldurra galdu behar dio irakurtzeari, idazteari, sortzeari"*
**JOSE LUIS PADRON**
IDAZLEA
2003-10-10



*"Arrisku egoeran dauden umeekin lanean jardun dut Caracasen"*
**MARINA REINOSO**
VENEZUELAN EGON ZEN GKE BATEKIN
2003-10-17

HIRIGINTZA

## Hirigune Historikoaren gaineko plana onartu zuten

Herriko hirigune historikoari dagokion plan berezia onartu zuen urriko osoko bilkuran udalbatzak. Behin-behineko dokumentua onartu zuten; behin hori onartuta, hilabetez jendaurrean jarri zuten plana, nahi zuenak alegazioak aurkez zitzan.

Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren helburua da herriaren gune hori babestea eta zaintzea, baina, era berean, baita bertako bizilagunen bizi kalitatea eta eraikinen kalitatea bera hobetzea ere.

Irizpide zehatzak markatzen ditu planak eraikinei eta gai urbanistikoei dagokienez. Besteak beste, hiriguneko eraikin guztiak banan-banan aztertu zituzten eta bakoitzaren gaineko irizpideak markatu; hainbat kategoriatan banatu zituzten eraikinak. /2003-10-10



**Plan berezi horren helburua da hirigune historikoa babestea eta zaintzea.**

ETXEBIZITZAK

### Azkeneko bi urteotan zazpi igogailu jarri dituzte etxebizitzetan

Udala dirulaguntzak ematen hasi zenetik, zazpi igogailu jarri dituzte herriko zazpi etxetan.

Irisgarritasun arazoei aurre egitea izan zen dirulaguntza horiek onartzeko arrazoia duela bi urte. 1960ko eta 1970eko hamarkadetako etxebizitza ugari dago Antzuolan, eta horietako askok ez zuten igogailurik. /2003-10-03

INTERNET

### Antzuolaren gaineko webgunea aurkeztu zuen Udalak

Internet azkenaldian hartzen dabilen indarra ikusita, Udalak aspalditik zuen webgunea egiteko asmoa. Azkenean, sarean dugu Antzuolaren gaineko informazioa eskaintzen duen webgunea.

Udaleko arduradunen helburua da bai herritarrengana eta bai kanpotarrengana iristea Internet bidez. /2003-10-17

TXOMIN GARAJEA
ZORIONAK GUZTIOI!
ad
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
IAT/ITVrako prestaketa
Lizarraga auzoa. Antzuola. Tel. 943 78 70 77

HARATEGIAK
JUAN JOXE AGIRRE
Kalebarren 1. Antzuola.
943 76 64 84
Gabon zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizuegu!
MARI KRUZ IPARRAGIRRE
Komenio kalea 2. Bergara.
943 76 10 72

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel./Faxa: 943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak
Eta orain....
GREMIOEN KOORDINAZIOA

# AZAROA



*"Jostailuak umeari eskainiko dionari begiratu behar zaio"*
**ITZIAR BARTOLOME**
HEZITZAILEA
2003-11-07



*"Datorren ikasturterako 0-3 urteko zikloa jartzeko asmoa dugu ikastetxean"*
**MARIA JESUS ITURBE**
PAUSOKAKO LEHENDAKARIA
2003-11-21

ERREPIDEAK

## Herrirako sarrera hobetzeko lanek itxaron egin beharko dute

Azaroaren hasieran jaso zuen Udalak Beheko auzoko herrirako sarreran obrak egiteko eskaeraren erantzuna. Gipuzkoako Diputazioak ezezkoa eman zuen, diru nahikoa ez dagoela argudiatuta. Urte batzuk itxaron beharko dira, hortaz, aldaketa egiteko.

Hala ere, Udala ez dago batere ados erabaki horrekin, herrirako sarrera hori oso arriskutsua dela uste du-eta.

Aldaketa egiteko proiektua aspaldi zuten prestatuta Diputazioko Garraio arduradunek. Obrak egiten direnean, Bergara aldetik datozen autoek herrira sartzeko bi errei gurutzatu beharrean bakarra gurutzatu beharko dute. Gaur egun eskuinekoa den bidea herrira doazenek itxaroteko erabiliko da; gora jarraitzeko bidea, berriz, Lapatza baserriari lur zati bat kenduta eraikiko da. /2003-11-07



ELKARTASUNA

## Anelkar, bost urtez Hirugarren Munduari laguntzen

Anelkar sortu zen arte, Antzuolan hainbat elkartasun talde zeuden, nor bere aldetik lanean. Duela bost urte beren indarrak elkartzea erabaki zuten beharrean zeudenei hobeto laguntzeko. Bosgarren urteurrena ospatzeko babarrun-jana antolatu zuen Anelkarrek. /2003-11-14

GAZTEAK

## Udala gazteen beharrak aztertzen hasi zen

Antzuolako zenbait gaztek asteburu arratsaldeak igarotzeko leku egokirik ez dutela eta, horien beharren inguruko hausnarketa egiten hasi zen Udala. Antzuolako gazteen egoera ikertzeaz Arrasateko Txatxilipurdi elkarteko kideak arduratu ziren. /2003-11-14

# ABENDUA



*"Jubilauendako lokal berrixa, etxe babestuak eta egunerako ospittala martxan ikusi nahiko giñuzke 2004ian"*
**KARMELE SAN SEBASTIAN**
ERRETIRATUA
2003-12-12

GABONAK

## Inoiz baino Gabonetako argi gehiago jarri dituzte

Gabonak abenduaren hasieratik sumatu dira herrian, Udalak kaleak argiekin apaindu baitzituen. Hala ere, egunik garrantzitsuena Gabon eguna izan da. Herri Ikastetxeko haurrek kalejira egin zuten goizean, eta arratsaldez presoen aldeko kalejirak eta herriko abesbatzarenak alaitu zituzten kaleak.

Beste urte batzuetan baino Gabonetako argi gehiago jarri ditu aurten Udalak herriko kaletan, eta abenduaren 5ean piztu zituzten lehenengoz. Udalaren helburua argiak herri osoan jartzea izan da, eta ez herrigunean bakarrik. Herriko hogeita bi kale-argitan izar itxurako argiak eta herriko bi sarreretan *Zorionak* zioten argiak jarri dituzte. Aurreko urteetan baino diru gehiago erabili du Udalak argien alokairu eta muntaketa lanetan, 4.000 euro lehenengoan eta 2.000 bigarrenean. /2003-12-05



Izar itxurako hogeita bi izar jarri dituzte herriko kale argietan.

DESKARGA autoak
DESKARGA AUTOAK
URTE BERRI ON!
Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tel. 943 76 62 75

Itzar
LIBURU DENDA
ESTANKOA
Zorionak guztioi!
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62

TALLERES
J. NAVARRO, S.M.
DECOLETAJE
Gabon zoriontsuak antzuolar guztioi!
Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tel. 943 76 64 66

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
Abad
Zorionak
danoi!
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA
ONDO PASAU GABONETAN!
ALTZARTE
Kalebarren 18. 943 76 62 94

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

# GOIZPER KOOP. ELK.

## MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN, ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

## GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
  - PNEUMATIKOAK
  - HIDRAULIKOAK
  - MEKANIKOAK
  - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
TEL: 943 786000
FAXA: 943 766008 - 943 787095
E-MAILA: goizper@goizper.com
Web gunea: www.goizper.com




fbs informatika aholkularitza

Eguzki Auzoa, 5 behea
20577 Antzuola (Gipuzkoa)
www.fbs.es / soporte@fbs.es
tel. +34 943 766 513
fax +34 943 766 514

enpresentzako gestio softwarea

VISUALEKUS



fbs-k VISUALEKUS gestio programa informatikoak garatu ditu eraikuntza alorrekin zerikusia duten enpresei zuzenduta. Enpresa bakoitzaren ezaugarrien arabera, aukera desberdinak eskaintzen ditugu.

Bestalde, iturgintza, gas eta berogailu instalazioan lan egiten duten enpresek ITURBAT Datu Basea dute eskuragarri.

informatika aholkularitza · gestio programa pertsonalizatuak
datu baseak · sare informatikoen instalazioa · web orrien diseinua
multimedia katalogoak · domeinu gestioa

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko abenduaren 26a / 168. zenbakia

# 2003 urteari begiratua

## ELGETA

SISTECO
MAKINA-ERREMINTAK

Makina-erreminten salmenta, laguntza teknikoko zerbitzua (SAT) eta berreraikuntza

Urte berri on guztioi!

Pagatza parke industriala 7A saila, ELGETA. Tel.: 943 76 82 14. FAxa: 943 76 81 00

# URTARRILA



*"Hirigintzak eta ingurumenak bide beretik joan behar dute, eta herriko politikoek ez dute ezer egiten hala izan dadin"*

**REBEKA UBERA**
MAYA INGURUMEN TALDEKOA
2003-01-17

POLITIKA

## Batasuna legez kanpo lagatzea salatu zuten herritarrek

*Askatasunaren alde gaudelako* manifestua sinatu zuten Elgetan Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna alderdiek izandako zinegotziek eta Talde Independenteak izandako zenbait zinegotzik.

Batasuna legez kanpo uzteko prozesuak herrian zein eragin izango zuen azaldu zion Bittor Gallastegik GOIBEKOKALEri: "Elgetar zati handi baten ordezkaritzak ezin du normaltasunez lan egin, ilegalizazio prozesu baten barruan sartu gaituztelako. Eta horri ere aurre egin behar zaio. Beste lan batzuk egiteko indar handia eta denbora luzea kentzen dizkigu. Aurrerantzean zelan antolatu-eta pentsatu behar da, ezker abertzaleak herrian jarrai dezan./2003-01-31

PRESOAK

### Gaizkile elkarteko kide izatea leporatu zioten Ane Miren Alberdiri

Akizen atxilotu zuen Frantziako poliziak Ane Miren Alberdi elgetarra. Lau egunean inkomunikatuta eduki ondoren, Laurence Levert terrorismoaren aurkako auzien ardura daraman epailearengana eraman zuten. Ane Mirenek eta berarekin atxilotutako beste biek atxiloketako bortizkeria salatu zuten. /2003-01-17



Batzar informatiboak egin zituzten.

# OTSAILA



*"Ustelkerixan bizi gara, ikustia nahi ez daban gizarte batian"*

**GEAXI EZPELETA**
IKASLEA
2003-02-21



*"Langileok sarritan berba egin dugu holakoren bat gerta zitekeela"*

**HARITZ GALLASTEGI**
'EGUNKARIA'-KO KAZETARIA
2003-02-28

BATZARRA

## Urteroko batzarra egin zuten mendizaleek Elgetan

Azken urteotan bezala, aurten ere Elgetan egin du Euskal Mendizale Elkarteak urteroko batzarra. Besteak beste, gai hauek aztertu zituzten: ibilaldi luzeetarako araudi berria; Federazioen Batasunarekin bategitea; Iparraldeko Taldeak EMFn; 2003rako aurrekontuak; 2002ko urtekariaren aurkezpena; 2003rako asmoak; eta eskaerak eta galderak.

Euskal Mendizale Elkarteko presidente Antxon Bandresek GOIBEKOKALEri adierazi zionez, hiru urte barru Mendiaren Museoa zabalik egotea espero dute: "Elgetako Udalak eta gure elkarteak etengabe dihardute harremanetan Mendiaren Museoaren proiektua aurrera eramateko. Hiru urte barru museoa zabalik egotea da gure nahia". /2003-02-14

IKASTAROA

### Ikastaro bereziak, txandaka lanean dihardutenendako

Txandaka lan egiten zuten elgetarrek ordutegiarekin arazoak zituzten KZGuneko ikastaro arruntetan parte hartzeko; hori zela eta, txandaka lanean ari zirenendako ikastaro trinkoa antolatu zuten Elgetako KZGunean.

Ikastaroa otsailaren 24tik 28ra izan zen, eta eskolak arratsaldez izan ziren. /2002-02-08

IKASTAROA

### Pertsona nagusiak eta gaixoak zaintzeko ikastaroa

Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ongizate zerbitzuek pertsona nagusien eta gaixoen zaintzaile familiarrendako ikastaroa antolatu zuten.

Ikastaroan parte hartu zutenek ikasi zuten pertsona nagusiak eta gaixoak zaintzeko oinarrizko argibideak zeintzuk diren. /2003-02-14

POLITIKA

### Elgeta Auzolanian plataforma aurkeztu zuten herrian

Elgetako ezkertiar eta abertzaleen plataforma bat aurkeztu zuten hilaren 22an Elgetako plazan. Ibarreko gainerako herri guztietan moduan, Gernikako deialdiaren ondorio zen plataforma. Elgeta Auzolanian izena jarri zioten.

Jai giroan egin zuten aurkezpena. /2003-02-21

HIRIGINTZA

### Frontoi zaharra egokitzeko akordioa egin zuten

Aspaldi eskatu zuten Guraso Elkartekoek eskola kanpoko jolastokian estalita egongo litzatekeen gunea. Hala, Udalak eta Patronatuak frontoi zaharra egokitzeko akordioa egin zuten.

Frontoia egokitzeko lanek 2.404 euroko aurrekontua zuten eta asmoa zen martxo hasieran hastea lanekin. /2003-02-21



BOLATOKI
Eguneko menua
Asteburuan menu bereziak
Plater Konbinatuak, ogitartekoak eta kazuelatxoak
Karta eta babarrun-jana enkarguz
Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

Urte berri on danoi!
Juan Mari eta Idurre Arantzeta
MASAJISTAK
Salbador 28, ELGETA. Tel: 943 76 80 54 / 76 81 90

# MARTXOA



*"Irakeko herrittarren moduan, geuk be eutsi egin biharko dogu"*
**JABIER ARANTZETA**
IRAKASLEA
2003-03-28



*"Zuri jantzita jokatzea amaitu da, baina entrenatzen segiko dut"*
**DAVID PEÑALVER**
OZKARBIKO PILOTARIA
2003-03-28

HIRIGINTZA

## Hamalau alegazio jaso ziren arau subsidiarioak aldatzeko

Egin ziren hamalau alegazioetatik bederatzi euren lurretan arau subsidiarioek aurreikusten zituzten lur erabilpenekin ados ez zeuden herritarrek egin zituzten. Herriko zenbait elkartek eta alderdik ere egin zituzten alegazioak.

Mayak, gaztetxeak eta Elgeta Auzolanian taldeak eskatu zuten Debagoieneko eskualdegiturako lurraldearen zatiko plana onartu arte Elgetako arau subsidiarioen onarpena bertan behera geratzea. Aralarrek eta Ezindu Fisikoen Elkarteak ere egin zituzten beren alegazioak.

Arau subsidiarioei herritarrek egindako hamalau alegazioen gaineko txostena egin zuen hurrengo egunetan Udaleko arkitektoak. Horren ondoren, osoko bilkuran onartu beharko zituzten arauak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eman beharko zukeen azken onarpena. /2003-03-28



Hainbat elkarte eta herritarrek aurkeztu zituzten alegazioak.

EGUNKARIA

### Elgetako Egunkaria batzordea aurkeztu zuten

*Egunkaria*-n lanean ziharduten Beatriz Zabalondok eta Haritz Gallastegik *Egunkaria*-ren aldeko batzordea aurkeztu zuten. Herriko elkarteei dei egin zieten *Egunkaria*-ren aldeko ekimenetan parte hartzeko. Besteak beste, harpidetzak egiteko dei egin zuten. /2003-03-07

HIRIGINTZA

### 89.361 euroko laguntza hirigintzarako

Eusko Jaurlaritzak Elgetako Udalari 89.361,32 euroko dirulaguntza eman zion hirigintzako hainbat berrikuntza egiteko. Udaletik esan zutenez, diru horrekin Espaloia aretoa egokitzeko lanak hasiko zituzten maiatz aurretik. Beste hainbat lan ere egin zituzten. /2003-03-14

# APIRILA



*"Gaur egun bizi dugun egoeraren aurrean, jendeari ondo pasatzeko aitzakia eman nahi izan diogu gure antzezlanarekin"*
**ANJEL ALKAIN**
AKTOREA
2003-04-04

HIRIGINTZA

## Larrabiltzearra landa lur izatea proposatu zuten

Larrabiltzearra landa lur modura lagatzea proposatu zuten Hirigintza, Obra eta Ingurumen batzordeak egindako bileran. Izan ere, ingurune hori urbanizatzeko asmoa zeukaten, baina bertan etxeak ez egiteko proposamenak hartu zion aurre etxeak eraikitzeko proiektuari.

Hainbat herritarren sinadurak jaso zituzten lurrotan etxeak eraikitzeko nahiaren aurkako jarrera azalduz, eta Hirigintza, Obra eta Ingurumen batzordean proposamena onartu zuten.

Larrabiltzearra ez zen izan landa lur izendapenari eutsi zion herriko gune bakarra. Sestoaldea gainen ere etxebizitza gehiago eraikitzeko asmoa zegoen, baina hainbat arrazoirengatik, azkenean ez zuen proiektuak aurrera egin. Besteak beste, oraindik egiteko dagoen saihesbidea inguru horretara aterako delako. /2003-04-16



Larrabiltzearrako lurrek bere horretan jarraituko dute, oraingoz.



# MAIATZA



*"Herriko sarrerako tunelian trafikua erregulatzia eskatuko notzake alkate berrixari"*
**MIREIA BERRIOZABAL**
LANGILEA
2003-05-23

HAUTESKUNDEAK

## EAJ-EA irabazle Aralarri bost botoko aldea aterata

Patxi Basaurik, 27 urtez alkate karguan jardun ostean, beste lau urterako berritu zuen Udaleko postua. Maiatzaren 25eko hauteskundeetan Aralarrekin sekulako lehia izan zuen koalizioak, eta bost botoko aldearekin Oxel Erostarbe zerrendaburu zuen alderdiaren aurretik geratu zen. Horrela, udalbatza osatzeko orduan lau zinegotzi izan zituen EAJ-EAk eta hiru ordezkari Aralarrek. Elgeta Auzolanian plataformaren botoak baliogabetu ez balituzte, hark zinegotzi bat izango zukeen Elgetako Udalean.

Normaltasuna izan zen nagusi hauteskundeetan. 843 elgetarrek zeukaten botoa emateko aukera eta horietatik 666 joan ziren gutun-azalak hautestontzietan sartzera./2003-05-30

OMENALDIA

## Intxorta elkartea omendu zuten jaietako danborradan

Aurtengo danborradako saria Intxorta elkarteari ematea erabaki zuten, elkarteko hainbat jendek danborradan parte hartzeaz gain, berau delako Elgetako elkarteetatik danborradako filosofia ondoen jaso duena.

Danborrada berezia izan zen aurtengoa, herriko ereserkia estreinatu zuten eta. /2003-05-16



Intxorta elkartea omendu zuten.

# EKAINA



*"Estreinatuko dugun Elgetako himnoa oso solemnea da"*
**JOSU DE VEGA**
DANBORRADAKO ANTOLATZAILEA
2003-06-06



*"Oraingo ikasle batzuen gurasoen irakasle izandakoa naiz eskolan"*
**LUPE IBARBIA**
HERRI ESKOLAKO IRAKASLEA
2003-06-27

UDALA

## EAJ-EAk eta Aralarrek osatu zuten udalbatza

Patxi Basauri Elkoro izendatu zuten berriro ere Elgetako alkate, bere koalizioko kideek emandako botoei esker. Aralarko zinegotziek, berriz, euren hautagai Oxel Erostarberen aldeko botoa eman zuten.

Aralar alderdiko alkategai Oxel Erostarbek EAJ-EA koalizioko zinegotziei baliogabetutako botoak errespetatzeko eta plataformari zegokion eserlekua lagatzeko eskatu zien. Izan ere, boto horiek balio izango balute, zinegotzien banaketa ezberdina izango litzateke: EAJ-EA koalizioak ordezkari bat galduko luke Elgeta Auzolanian plataformaren mesedetan.

Udalbatza berria osatzeko bilkuran normaltasuna izan zen nagusi. Udaletxe aretora joandako 30 herritar inguruk jarraitu zuen ezohiko bilkura. /2003-06-20


Udalbatza osatzeko bilkuran normaltasuna izan zen nagusi.

JAIAK

## Asentzio Eguneko urteroko jaia euripean amaitu zen

Asentzio Eguna ospatu zuten elgetarrek ekainaren 1ean. Goizerako antolatutako ibilaldian jende gutxik hartu zuen parte, baina eguerdian jende dezente inguratu zen.

Arratsaldeko zaparrada hasi bezain laster, dena batu eta Elgetara joan ziren herritarrak, han jaia amaitzera. /2003-06-06

TXIRRINDULARITZA

## Elgetarrek omenaldia egin zioten Jone Muxikari

Emakumeen Birako erlojukontrako proba Elgetan amaitu zen hilaren 14an. Egun hori aprobetxatuz, omenaldia jaso zuen Jone Muxika elgetarrak.

Jone Muxikak Euskadiko Ziklo-kros Txapelketa irabazi zuen urte hasieran, Beran, eta zortzigarren izan zen Espainiako Txapelketan. /2003-06-20



BARRENENGUA BASERRI TURISMOA

Egoetxeaga auzoa
20690 ELGETA
Tel: 943 76 82 21

Urte berri on zoriontsua!



Elgeta-Piel

*Urte berri on zoriontsua opa dizkizuegu denoi!*

Domingo Iturbe 8 **ELGETA** 943 76 81 12



# UZTAILA



*"Inoiz Athleticen jokatzeak ikaragarrizko ilusioa egingo lidake"*
**MIREIA RUBIO**
FUTBOLARIA
2003-07-04



*"Ukrainan osasun arazoak dituztelako etorri dira ume hauek"*
**ARANTXA ASKASIBAR**
UKRAINARRAK ETXEAN UDAN
2003-07-18

EGUNKARIA

## Dirulaguntza bikoitza lortu zuten 'Egunkaria'-rendako

*Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik, lanean jardun zuten egunerokoaren alde dirua batzeko Elgetako batzordeko kideek. Itxieratik lau hilabete pasa zirenean, elgetarrek jarritako helburua lortu ez ezik, ia bikoiztera ere iritsi ziren, eta diru gehiago batzea izan zen hurrengo helburua.

Elgetako *Egunkaria*-ren aldeko batzordekoek hasierako protesta ekintzez gain beste hainbat lan egin zituzten *Berria* egunkariaren proiektua aurrera atera zedin. Besteak beste, kamisetak, metxeroak eta pinak saldu zituzten, eta diru asko atera zuten.

*Berria* egunkaria aurkeztu zuten egun berean, Elgetan egunkari horren alde dirua batzeko kirol festa egin zuten, eta bertan lortutako diruarekin 300 euroko zazpi akzio erosi zituzten. Hain zuzen ere, akzio horiek batzordean ibili ziren kide batzuen izenean erosi zituzten. /2003-07-24

PILOTA

## Sorarrain eta Apezetxea lau t'erdiko txapeldun

Eñaut Sorarrain alkizarra izan zen txapeldun aurtengo ETB Kantxa lau t'erdiko txapelketan, 23 urtez azpikoetan. Kadeteetan, berriz, Apezetxea goizuetarra. Sorarrainek 22-13 irabazi zion finala Mendizabali eta Apezetxea 22-12 nagusitu zen Iraolaren aurka. /2003-07-11

JAIAK

## Adin eta gustu guztiendako ekitaldiak izan ziren jaietan

Jai giroa nagusi izan zen Elgetan jaietan. Mozorroak, herri kirolak, danborrada, umeendako jolasak, musika, dantzak... Ez zen ezer falta izan. Ekitaldi nagusienetakoa danborrada izan zen. Ume eta heldu, guztiak aritu ziren danborrak astintzen. Bertan estreinaldia: Elgetako Martxaren doinua. /2003-07-11

TXIRRINDULARITZA

## Ceballos nagusi Mendiko Txirrindulari Lasterketan

Uztailaren 20an jokatu zen XIX. Euskadiko Mendiko Txirrindulari Lasterketa. Helmugan Alfus-Tedes taldeko Jacinto Ceballos bizkaitarra izan zen nagusi; 122 kilometroko ibilbidea hiru ordu 15 minutu eta 12 segundoan egin zuen. Elgetako lasterketa Euskaldun Zirkuiturako puntuagarria izan zen. /2003-07-24

ENPRESA

## Lanuztea eten zuten Forjanor enpresakoek

Forjanor enpresako produkzioko langileek greba mugagabea hasi zuten uztailaren 7an, eta hilaren 14ra arte geldirik egon ostean, greba eten egin zuten. Hitzarmen propioa lortzea zen langileen helburua. Sidenor Industrial taldekoek erabakiren bat hartu zain geratu ziren. /2003-07-18

# ABUZTUA



*"Eskalatzaileok ez ditugu milioiak irabazten, baina geure burua ezagutzen dugu gauzak mugara eramanez"*
**PATXI USOBIAGA**
ESKALATZAILEA
2003-08-31

JAIAK

## Salbador kaleko jaiak ospatu zituzten abuztuaren 6an

Urtero moduan, Salbador egunez jaiak ospatu zituzten izen bereko kaleko bizilagunek.

Salbador ermitaren alboan txopoa altxatu zuten goizean, etxafuego zarataz lagunduta, eta jaiak hasi ostean meza izan zen Salbadorren bertan. Mezaren ondoren, soinu jotzaileek alaitu zuten giroa eta salda, txorizoa eta tortilla jateko aukera izan zen.

Arratsaldean umeek jolasean jardun zuten eta gero etxeko txikienendako txirrindulari proba izan zen. Salbador kalean gora ermitaraino igo behar izan zuten bizikletaz.

Indarrak berritzeko herri afaria izan zen Salbador kalearen ostean eta, jaiak amaitzeko, erromerian dantzarako doinuak Joxe Gardokiren eskutik. /2003-08-08

HERRIA

## Elizako ordularia geldirik egon zen abuztuan zehar

Abuztuan jendeak oporrak hartu zituen, eta badirudi elizako erlojuak ere lana albo batera laga zuela. Bigarren astean gelditu, eta probak egin zituzten arren, irail hasieran ezin izan zituzten orratzak berriz mugimenduan jarri. Izan ere, erlojua oso zaharra da eta pieza batzuk hondatuta omen zituen. /2003-08-15



**Ordulariak ere oporrak hartu zituen.**




• Eguneko menua: 7 euro
• Plater konbinatuak, bokatak eta kazuelatxoak
• Asteburuetan menu berezia: 12 euro
• Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 **ELGETA** TEL.: 943 76 82 73

# IRAILA



*"Pilotan gustura jardungo duen koadrilatxo bat badelako antolatu dugu txapelketa, lagun giroan pilotan egiteko"*
**FERNANDO ZENITAGOIA**
BETERANOEN PILOTA TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA
2003-09-19

HIRIGINTZA

## Babes ofizialeko hogei etxebizitza Torrealdean

Abuztuaren 4an Gobernu batzordeak egindako osoko bilkuran hainbat gai landu zituzten. Besteak beste, Torrealdeko lurrak urbanizatzeko proiektua behin betiko onartzeko erabakia hartu zuten bertan.

Urbanizazio proiektu horren kostu osoa 1.464.295,10 eurokoa dela jakinarazi zuten Udaleko teknikariek eta adituek, eta urbanizazio lanak irailean edo, beranduenez, urrian amaituko zirela.

Behin lurrak urbanizatuta, bertan eraikinak egiteko modua izango da, eta hori zen, hain zuzen ere, aurreikusita zegoena: Torrealdean 76 etxebizitza eraikitzea. Hain justu ere, etxebizitza horietatik hogei babes ofizialekoak izango dira eta gainerakoak, berriz, libreak./2003-09-12

GERTAKARIAK

### 25 urteko zigorra eskatu zuten Elkoro hil zuenarendako

Donostiako Auzitegiko fiskaltzak 25 urteko kartzela zigorra eskatu zuen Arrate Elkororen ustezko hiltzailearentzat.

Fiskaltzak, 25 urteko zigorraz gain, akusatuari Elgetan sartzea debekatzeko eskatu zuen, bost urtez. Horrez gainera, kalteordaina ematea alargunari eta alabei. /2003-09-05

JAI GIROAN

### 180 litro sagardo edan zituzten elgetarrek Sagardo Egunean

Kupela sagardoaren hotela dela dio kantuak. Egun batez izan bazen ere, Elgetak eman zion ostatu sagardoari irailaren 13an.

Zazpi bat kupel jarri zituzten plazan eta, sagardoaz gain, beste hainbat ekitaldi ere izan ziren: Tortilla Lehiaketa, malabare ikuskizuna eta musika, besteak beste. /2003-09-26

# URRIA



*"Tai-chiak gorputzari oreka eta harmonia ematen dizkio"*
**ASUN MARTINEZ**
TAI-CHIKO IRAKASLEA
2003-10-03



*"Elgetan lagunak ditut, eta bertan antzezteak ilusio handia egiten dit"*
**MIKEL LASKURAIN**
AKTOREA
2003-10-17

HEZKUNTZA

## Pakistango hiru haurrek ikasturtea hasi zuten herrian

Urrian hiru ikasle berrik hasi zuten ikasturtea Herri Eskolan. Pakistandarrak dira hirurak, familia berekoak, hain zuzen ere. Aitaren lana dela eta etorri ziren Elgetara beste hainbat seniderekin eta urria ezkero nor bere gelan dago eskola hartzen.

Safae, mutiko txikiena, 2 urtekoen gelan hasi zen, Gull neskatila 5 urtekoekin eta 6 urtekoekin Akibtufail.

Hasieran, komunikatzeko hainbat zailtasun izan zituzten eskolan, umeek ez zuten-eta ez euskaraz ezta gaztelaniaz ere berba egiten. Eskolan esan zigutenez, laguntzaile bat bidaltzeko zain zeuden bitartean nola edo hala elkar ulertzen saiatzen ziren ikasle atzerritarrak eta irakasleak.

Hezkuntza Sailak etorkinak eskolatzeko irizpide berriak prestatzen dihardu. /2003-10-17



Urrian hasi ziren hiru anai-arreba pakistandarrak: Gull, Safae eta Akibtufail.

HIRIGINTZA

### Tunel azpian espaloiak jartzen hasi ziren zirkulazioa moteltzeko

Herrian zirkulazioa moteltzeko asmoz, hainbat lekutan espaloiak egiteko erabakia hartu zuten. Besteak beste, tunel azpiko alde bietan egin zituzten.

Baina obrak ia amaitzear zeudela aldaketak izan ziren eta berriz egin behar izan zuten alde batekoa. Izan ere, espaloi ertza inklinatuta egin zuten. /2003-10-10

GARRAIO PUBLIKOA

### Autobus gehiago eskatu zituzten herritarrek

Garraio publikoaren arazoa zenbaterainokoa zen ikusteko herritarren artean galdeketa zabaldu zuen Elgetako Udalak.

Erantzunak jasotzeko epea amaitu ondoren, ehunetik gora orri batu zituzten udaletxean, eta emandako erantzunen artean autobus gehiago eskatu zituzten gehienek. /2003-10-31

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.*
*Zorionak eta urte berri on!*



SAIOA ARANZABAL MASAJEAK
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean
Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Podologia •
• Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginiko estalkia • Depilazioa laser bide
Urte berri on!
Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

# AZAROA



*"Euskal Herria paradisua da 'quad'-ean ibiltzeko"*
**ALBERT ESPINAL**
'QUAD' ZALEA
2003-11-07



*"Gurasoek umeei kantatzeko baliabideak eskaintzeko da ikastaroa"*
**ANA ALTUNA**
MUSIKA IRAKASLEA
2003-11-28

INTERNET

## Udal webguneak 27.000 bisitatik gora urtebetean

Azaroaren 10ean bete zen urtebete Elgetako Udalak webgune berritua aurkeztu zuela. Denbora horretan, erabiltzaileek erantzun ona eman dute. Hau da, bisiten eta orri ikusien kopuruek gora egin dute pixkanaka. Irailean eta urrian batez ere kopuruek izugarrizko gorakada izan zuten.

Webgune dinamikoa da *www.elgeta.org* helbidean aurki dezakeguna. Edukiak eguneratuz, albiste berriak argitaratuz eta informazioa e-posta bidez banatuz lortzen du dinamikotasun hori. Urte honetan 200 albistetik gora sartu dituzte. Harpideek, gainera, webgunean ipini ahala jasotzen dute albiste bakoitza euren posta elektronikoan.

Goiena Komunikazio Zerbitzuek lantzen dute edukia, bai atal finkoa baita albistegia eta agenda ere. Zope sistemarekin garatzen da. /2003-11-07




Urtebete egin du Elgetako webguneak sarean.

ERREPIDEAK

## Izarreko bihurguneko zuloak estali zituzten

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Saileko mantentze-lanen taldeak Izarreko bihurgunea konpontzen jardun zuen. Bihurgunearen barruko aldean asfalto kapa batzuk bota zituzten zulo handienak estaltzeko. Konponketa behin-behineko irtenbidea izan zen./2003-11-14

HILERRIA

## Kanposantuaren ekialdeko zatia egokitu zuten

Herriko hilerrian lurperatze gehiago egiteko leku gabe geratzen dihardute Elgetan. Hori dela eta, egokitzapen lanak egiteko asmoa azaldu zuen Elgetako Udalak. Horretarako, ordea, lurperatuta zeudenen senitartekoei jakinarazi zieten lanean hasi aurretik. /2003-11-21

# ABENDUA



*"Neurri handiagoan edo txikiagoan baina denok daukagu estresa eta oso estresatuta bagaude beharrezkoa da laguntza"*
**KARMELE BENITO**
FAMILIA MEDIKUA
2003-12-12

ETXEBIZITZAK

## Torrealdeko lehen etxeak egiteko lanak hasi zituzten

Torrealdean etxeak eraikitzeko asmoa aspaldikoa da, baina abenduan zehar hasi ziren obrak egiteko inguruak egokitzen. Zimenduak ipintzea zen lehen lana eta horretarako makinak eta kamioiak pasa zitezen bide bat egokitu zuten Berraondokuatik Torrealdeara bitartean.

Ondoren, zimenduak ipini eta Plazatik gertuen dagoen alderdian 16 etxebizitzako eraikina egingo dute lehenengo fasean.

Promozio librekoak izango dira lehenengo eraikiko dituzten etxebizitzak. Ondoren, inguruaren urbanizazioa egingo da, eta baliteke orain obretarako egindako behin-behineko bidea gero behin betikoa izatea.

Guztira, Torrealdean 76 etxebizitza eraikiko dituzte bost bloketan banatuta. Horietatik 20 babes ofizialekoak izango dira, oraindik zeinek egin erabaki ez badute ere. /2002-12-5



Abenduaren erdialdean hasi ziren obretarako bidea egiten.

ILEA
ILE APAINDEGIA
Marijok urte berri on opa dizue !

Andra Mari plaza 2
Tel.: 943 76 81 97
ELGETA



Salbador 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta




ARALAR

Inon ez inor menpekorikan
nor bere buruaren jabe
herri guztiok bat eginikan
ez gabiltza gerorik gabe

Batek goserikan diraueno
ez gara gu asetuko
beste bat inon loturik deino
ez gara libre izango.
*Artze*

**Pertsona guztiak**
**Ideia guztiak**
**Proiektu guztiak**

**Su etena, elkarrizketa**
**AUTODETERMINAZIOA**

Zure laguntza ere beharrezkoa zaigu

Salbador kalea 1

20690 Elgeta

elgeta@aralar.net

943768306

www.aralar.net